

# Goienkaria

EGUAZTENA • 2003ko apirilaren 16a • IV. urtea • 107. zenbakia • DOAN BANATZEKO



## Goienka2a

Toti Martínez de Lezearekin euskal emakumez berbetan

KIKE AMONARRIZ / SOZIOLINGUISTA

*"Ikuspegi baikorra izatea eta umorea edukitzea beharrezko dira une zailenetan ere"* /8-9



KIROLA

Axen Garitano garaile Bergaran, txakur leren lasterketan /10

ASTEKO GAIA: KOOPERATIBAK TXINAN /2-3

## Ibarreko enpresak Txina komunistan

Txina izango da, adituen iritziz, datozen urteotako merkatu handiena. Baina, oraindik ere, hain lan egiteak hainbat berezitasun ditu, Txinako tradizio komunista dela-eta.

Debagoieneko hainbat kooperatibak Txinan dihardute lanean: besteak beste, Fagorrek, Coprecik eta Wingroup-ek. Eta

han bizi izan diren edo oraindik han diharduten euskaldunekin egin dugu berba: Txinako enpresa eta ekonomia esparruetan zelan jardun behar den arrakasta izateko; hango kulturara eta gizartera zelan moldatu diren; hangoek zelan hartu dituzten... Horien eta gehiagoren berri eman digute hiru euskaldunek. /2-3

■ *Wingroup, Copreci eta Fagor kooperatibek leku egiten dihardute*

■ *Merkatu komplikatua da, baina etorkizunari begira, garrantzitsua*

## Aberri Egunean ez dute ekitaldi bateraturik egingo Debagoienez

Datorren apirilaren 20an Aberri Eguna ospatuko da. Baina aurten, aurreko urteetan ez bezala, ibarreko abertzaleek ez dute ekitaldi bateraturik egingo. Hala ere, hainbat alderdik egindako deialdiei erantzunez, Euskal Herriko txoko askotan ospatuko dute egun hori.

Horren harira, Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasunak kudeatzen duten Udaltzarak Hendaian egingo du ekitaldi nagusia, eta Euzkaltzaleen

Biltzarra omenduko dute bertan. EAJk, bestalde, alderdiko ospakizunak Donibane Lohizunen eta Bilbon egingo ditu, eta EAK, Gernikan.

Ezker Abertzaleko Udaltzarak, berriz, Amairrera joateko gonbita egin die jarraitzaileei. Hala, AuBk, deialdi horrekin bat egiteaz gainera, Iruñean egingo den manifestaziora joateko dei egin du. Eta Aralarrek ere Iruñean egingo ditu Aberri Eguneko ospakizunak.



## ESKORIATZA

Apirilaren 30ean inauguratuko dute udaletxe berria

Apirilaren 30ean, eguaztenez, inauguratuko dute Edorta Zubizarreta alkateak eta berritze lanak zuzendu dituen Jabier Egaña arkitektoak Eskoriatzako udaletxe berria. Era berean, Udalaren irudi korporatibo berria aurkeztuko dute ekitaldi horretan. Orain dela urtebete pasatxo hasi zituzten lanak, eta tarte horretan erabat berri dute udaletxea, bai kanpoko aldetik, bai barruko aldetik. Udaletxea herritar guztiei irekia izatea gura zuten, eta, hori lortzeko, oztopo arkitektonikoak kentzen ahalegin handia egin dute. /7

## Aste Santuko prozesioak egongo dira ibarrean

Aste Santua dela-eta hainbat erlijio ospakizun egongo dira Debagoienez, herrietako elizbarrutiek antolatuta. Beste ekitaldi batzuen artean, Aretxabaletako eta Elgetako

Aste Santuko prozesioetan parte hartzeko edo horiek ikusteko aukera egongo da. Egubakoitzean egingo dituzte bi ekitaldiok: Aretxabaletan goizean elizkizuna egongo

da eta gero, parrokiatik Izurieta auzoraino prozesioa; Elgetan meza egingo dute 18:00etan eta mezaren ostean prozesioa ibiliko da herriko kaleetan.

GOIENKARIA

# Kooperatibismoa Txina komunistan

- *Debagoieneko hiru enpresak leku egiten dihardute Asiako herrialdean*
- *Txinan izan gara, Copreci, Fagor eta Wingroup-eko euskaldunekin*

ENDIKA SORONDO

**T**xina komunistak merkatua zabaltzen dihardu, kapitalismoari zirrikitua irekiz. Mundu osoko enpresek Txinan kokatzea dute helburu, herrialde hori da eta azken urteotan hazkunde ekonomiko handiena izan duena, eta hurrengo urteetan ere hori izango da gehien haziko dena.

## DEBAGOIENEN ENPRESAK

Atzerriko inbertsio horien artean, Debagoieneko enpresak ez dira salbuespen. Aretxabaletako Copreci, Arrasateko Fagor eta Bergarako Wingroup Txinan dira, hango merkatu zailean leku egiten, hirurak ere MCC taldekoak. Euskal Herriatik ere badira beste zenbait enpresa egoitza Asiako merkatuan finkatuta dutenak: Irizar, Orkli, Savera edo Bapco, beste batzuen artean.

Lantalde osoak Txinako jendez osatuta badaude ere, zuzendariak Euskal Herriatik joanak dira. Jose Luis Fernández Aretxabaletako Copreci enpresak bidalita dago Pekinen, eta han lantegi bat jartzeko aukera aztertzen dihardu. Fagor Txinako enpresa batekin elkartuta dago lapikoak egiten, eta orain dela aste gutxi arte, Ainhoa Eskudero zumaiarra izan da Shanghain zuzendari lanetan. Urte eta erdi egin ostean Euskal Herri-ira itzuli berri da.

Wingroup, aldiz, Bergarako Dykar enpresak bultzatuta sortu zen. Bergaran bulego komertziala bakarrik daukate, eta euren lantegi bakarra Shanghain dago. Zuzendari orokorra Juan Angel García da. Gimnasioetarako materiala, oro har, eta bizikleta estetikoa, batez ere, egiten dituzte.

Txinako merkatu zailean lanean jardutea ez da erraza. Horretan bat datoz hirurak: "Txinan inbertsio bat egin ahal izateko *joint-venture* bat behar duzu hango bazkide batekin. Horrez gainera, kulturalki hain desberdinak izateak zailtasunak eragiten ditu lanean; eta herrialde babestua da, hango jendearen mentalitatea izugarri babestua izan da", adierazi dio GOIENKARIARI Juan Angel García, Wingroup-eko kideak. Babes horrek ere gauzak zailtzen ditu: "Burokrazia izuga-



ARGAZIAK: ASIER GOGORTZA

Eskulan merkeak atzerriko inbertsioak erakarri ditu Txinara eta han daude gure ibarreko hainbat enpresa ere, Copreci, Fagor eta Wingroup esaterako.

ria da, hierarkia itzelak daude, eta legearen anbiguitasuna imajinezina da. Herrialde erabat fiskalista da negozioetarako, eta inoiz ez dakizu zer den posible eta zer

ez". Iritzi berekoa da Ainhoa Eskudero: "Oso merkatu konplikatu da, itxia guztiz, ez dago berdin antolatua, kobratzeko zailtasunak daude..."

Txinan egotearen beharra azpimarratu dute denek: "Hazten dabilen merkatu erraldoia da. 2020rako munduko hirugarrena izatea espero da, eta bigarrena 2050erako,

Europaren aurretik. Kualifikazio ertaineko industria da, tirada handietakoa, kostu txikietan. Aurkariak hemen daude, eta horregatik egon behar dugu guk ere bertan".

## SHANGHAI MINIDOMESTICOS Sendotzearen urtea

Fagor Minidomésticos-en eta Txinako enpresa baten arteko *joint-venture*-a da. Presiozko lapikoak egiten dituzte. Lantegia Shanghain dago, eta produkzioa 2002ko ekainean hasi zuten, nahiz eta prestakizunak 2001eko irailean hasi zituzten. 200 langile inguru dituzte. Hala ere, produkzioa oraindik ez da erabat jarraitua izan, eta horren ondorioz, ezta pertsonala ere. Produkzioa Txinan egiten bada ere, salmenta ez da handik egiten, Euskal Herriatik baizik.

## COPRECI-CHINA Hasiberriak

Aretxabaletako enpresak bulegoa baino ez du Pekinen, MCCren egoitza berean. 2002ko maiatzaz geroztik dihardute Txinan lanean, merkatua aztertzen, bezeroak lortzeko ahaleginean, eta hantxe enpresa ezarriko duten erabakitzeko. Txinan inbertitzeko asmoa dute, baina horretarako bezero kopuru jakin bat lortu behar dute. Aurkari guztiak Txinan kokatu izana eta herrialdeak eskaintzen dituen baldintzak izan dira herrialde hartara eraman dutena.

## WINGROUP Pedal kolpe sendoa

Begarako Dykar enpresak Txinako hainbat gauza salerosten zituen: lozakuak, kanpadendak, gimnasia aparailuak... Carrefour bezero nagusienetako bat zen, eta produktore izatea eskatu zien. 1998az geroztik dago Shanghaiko lantegia, eta etengabeko hazkunde izan du. Datorren urterako, lantegi berria zabalduko dute. 2002an, 300.000 bizikleta egin dituzte euren lantegietan. 204 langile dituzte, eta urteko fakturazioa 10 milioi dolarrekoa da.

AINHOA ESKUDERO / SHANGHAI MINIDOMÉSTICOS-KO ZUZENDARI OHIA

## “Erakustera zatozela uste duzu, baina zuk ere ikasten duzu”

**O**rain dela 28 urte jaio zen Zumaian, baina Geta-rian bizi da gaur egun. Urte eta erdi eman du Ainhoa Shanghai, Fagorrek parte hartzen duen enpresako zuzendari gisa. Elkarrizketa hau egin eta aste gutxira itzuli zen Euskal Herrira. Inge-niaria da ikasketaz.

**Zein egoeratan dago, gaur egun, Fagorrek Shanghai duen lantokia?**

Helburuak uste genuen baino lehen bete dira. Hasiera guztiak izaten dira gaitz, baina produkzioa azkartu egin da, eta planteamendua berritu, estrategia pres-

tatu... Produktzioa joan den ekai-nean hasi zen, apur bat atzeratuta, baina finkatze bidean dago.

**Gaitz behar du izan distan-tziatik, hain kultura ezberdi-nak tartean, enpresa berri bat gidatzea?**


Bai, hala da. *Joint-venture* bat da. Egunerokoa bi enpresaren artekoa da, eta ni naiz Fagorre-ko zatiaren ordezkaria, baina beti tartean zaude, hemen, Txinan, hangoei, Euskal Herrikoei, aurpegia ateratzen ibiltzen zara; eta han, hemengoei. Euskal Herrian daudenek baino hobeto ezagutzen dut nik errealitatea.

**Emakume izateak zailta-sunik eragin dizkizu lanean?**

Lanean ez, emakume izatea ez da inongo unetan arazo izan. Manager-ordea ingeniari txina-tarra da, 50 urteko emakumea. Lanean Euskal Herrian baino arazo gutxiago dago emakume izate-arekin. Zailtasun gehiago aurkitu ditut bertako emakumeak ez direlako bakarrik mugitzen. Dauden emakumeekin oso lagun onak izaten bukatzen duzu.

**Zer ikasi duzu txinata-rrengandik?**

Erakustera zatozela uste duzu sarritan, baina zuk ere ikasten duzu. Oso kultura zaharra da eurena, eta horrenbeste urteren ondoren hemen baldin badaude, zerbaitegatik izango da.



Ainhoa Eskudero, Nanjin Lu-ko kafetegi baten, munduko kale jendetsuenean.

JUAN ÁNGEL GARCÍA / WINGROUP-EKO ZUZENDARIA

## “Presaz datorrenak jai du; hemen gauzak polikiago egiten dira”

**E**stres handiarekin bizi da Juan Ángel García Shanghai, hiriaren pare. Ez da lehen aldia Euskal Herritik kanpo lan egiten duela. Bere bizimoduak ez du ordutegirik, eta lanera emana da guztiz. Bere-berea du proiektua, eta hori antzema-ten da bere hitzetan.

**Txinara heldu aurretik beste leku batzuetan ere lan egin-dakoa zara; Brasilen, esate baterako. Ezberdintasunak areagotu egiten dira Txinan?**

Bai, duda barik. Erabat babes-tutako herrialdea da. Zelan azal-duko diozu txinatar bati Donos-

tiako McDonalds-en jendeak bere azpila jasotzen duela? Ezin uler dezakete. Komunismoaren eta kapitalismoaren arteko sistema honek ulergaitz egiten ditu hainbat gauza, eta komunikazioa oso hizkuntza konplexuan gertatzen da. Gaizkiulertuak oso ohikoak dira hemen. Proiektuak hemen ez dira koiunturalak, estrukturalak baizik. Hona urtebetean nego-zioa egitera etorri gura duenak zorte handia behar du. Gauzak polikiago egiten dira hemen; hortaz, hona presaz datorrenak jai du.

**Hazkundearen aurrean Txin-an lehenbailehen egotea kla-bea izango da?**

Duda barik, proiektu estrukturalak direlako. Hona datozen enpresak ez dira jatorrizko herrialdearen ordezkari. Bertan egon behar da, une berean egin behar da, pazientzia behar da. Europan leku barik gelditutako-an presaka hona etortzea alfe-rrik izango da.

**Zelako esperientzia izan da zuretako?**

Izan da, eta izaten jarraitzen du. Erroka handia da profesio-nalki zein pertsonalki, eta etor-kizunean negozioarako ahalmen handia izango duen herrialde baten egoteko aukera eskaini dit. Nire bizitza arrazionalizatu egin behar dut, europartu.



Wingroup-en lantegia txiki gelditu ostean, egoitza berria eraikiko dute Shanghai.

JOSÉ LUIS FERNÁNDEZ / COPRECI-CHINAKO ZUZENDARIA

## “Txinan bizi izatea erraza da, oso portaera xamurra dute-eta”

**H**ilabete gutxi batzuk daramatza Txinan José Luis Fernández arrasatearrak. Bat-batean jaso zuen Txinara etortzeko berria, eta emazteak animatuta etorri zen, hura ondoan hartuta. Pekinen bizi da. MCCk Txinako hiriburuan duen bule-goetan dihardu.

**Esperientzia erabat berria izan da zuretako. Uste bezain gaitza izan da Txinako egonaldia zuretako?**

Uste genuen baino hobe joan zaigu. Txinako merkatua oso hel-dua da, ez diegu ezer erakutsiko.

Gaitz jarriko digute hurrengo urteotan. Ko-ingenieritzan lagun-tza behar dute, horretan daude okerren. Emeki, baina ondo sar-tzen gabiltza.

**Hizkuntza, kultura, ohitu-rak... erabat ezberdinak dira. Eraginik izan du zure lanean?**

Bai. Hori da alderdi gogorre-na. Lankide txinatar bat izan dut ondoan, eta hura gabe ni ez nin-tzateke inor hemen. Hizkuntza oinarrikoa da, nahiz eta indus-tria arloan geroago eta gehiagok jarduten duten ingelesez, baina oso astiro, nire bezero gehienek oraindik ez dakite-eta ingelesez. Ni neu bakarrik ez naiz deus ere

hemen. Ohiturek eragina dute, baina ez horrenbestekoa.

**Eta arlo pertsonalean?**

Erabateko aldaketa. Produk-tu jakin bateko ardura nuen Are-txabaletako lantegian. Bezero bakarra nuen produktu horretan. Arlo komertziala atzeko alde-tik ikusia nuen. Horregatik, lane-an berean aldaketa handia izan dut, eta horren eraginez nire egu-nerokotasunean ere. Denek genituen zalantzak zelan aterako nin-tzen, eta oraingoz ondo doakit. Oinarrian gu baino hobeak dira, portaera xamurra dute, harre-mana oso ona da jendearekin. Txinan bizi izatea oso erraza da.



José Luis Fernández, MCCko Pekingo bulegoan.



ARGAZKI PRESS

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, Euskal Herriatik joandako ikasle, irakasle eta gurasoek aldarrikatu zuten hezkuntza sistema berria.

## Euskarazko unibertsitate nazionala aldarrikatu zuten domekan Oñatin

*Herriatik sortua eta herriari begira egindako unibertsitatea eskatu zuten*

ENEKO AZKARATE

**Herriatik sortutako eta herriari begira egindako unibertsitate aldarrikatu zuten joan den domekan, Oñatin, Euskal Herriak Euskal Unibertsitatea ekimeneko kideek. Hantxe elkartu ziren hainbat ikasle, irakasle eta guraso.**

Euskal unibertsitate nazionala, hau da, hezkuntza sistema euskalduna aldarrikatu zuten: "Unibertsitate nazionala: herri-tarra, nazionala eta euskalduna". Horixe izan zen Oñatiko kaleetan egindako manifestazioan aldarrikatu zuten mezu nagusia. Era berean, herritarren zerbitzura egongo den unibertsitate autonomoa eta demokratikoa ere eskatu zuten Oñatin batutakoek.

Azken hilabeteotan egin duten sinadura batzearen azken ekitaldia izan zen Oñatikoa. Dagoeneko 30.000 bat sinadura batu dituzte Euskal Unibertsitatearen alde. Aurrera begira,

asmoa euskal unibertsitatearen aldeko konpromisoa hartu dutenekin harremanak bultzatzeko komunikazio bideak sendotzea dela esan zuten antolatzaileek.

Manifestazioarekin batera, beste hainbat ekitaldi ere izan ziren Oñatin: herri bazkaria, rock kontzertua... Aldarrikapena eta jai giroa uztartu zituzten, hortaz.



**XABIER ARREGI**

EUSKAL UNIBERTSITATEAREN ALDEKOA

*"Gizarteak unibertsitate berria aldarrikatzen du"*

**Zein da ekimen horren helburua?**

Erakutsi gura dugu gizarteari badagoela mugimendu sendo bat euskal unibertsitate berria aldarrikatzen duena, eta mezu hori Oñatira ekarri gura izan dugu, Oñatik baduelako esanahi garrantzitsua euskal unibertsitatearen historian.

**Aldarrikapen hori egiteko sinadura batzea egin dugu.**

Bai. Mahaiak jarri ditugu han eta hemen, eta mahaiotan jasotako sinaduren bitartez, herritarrek esan digute bat egiten dutela gure aldarrikapenekin. Orain, sinadura horiek eman digutenekin komunikazio

kanala sortu gura dugu, euskal unibertsitatearen aldeko oinarri sozial hori finantzatzeko.

**Unibertsitate Legeak ez dizue helburu horiek sustatzen lagunduko...**

Ez. Gainera, lege horrek Euskal Herriaren gaur egungo zatiketa bermatu egiten du.

## Aste Santuan irekita egongo dira Debagoieneko lau turismo bulegoak

*Leintz Gatzagan, apirilaren 1ean zabaldu zuten bulego berria*

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aste Santua opor garaia izanda, ibarrera ere turistak etorri ohi dira. Horien beharrei erantzuteko, lau bulego egongo dira irekita egunotan. Leintz Gatzagako bulego berria izan zen atean zabalitzen lehena. Goizez eta arratsaldean hartuko ditu turistak, eta,

informazio lekua izateaz gain, salmenta puntua ere bada, dena ireki dute eta bulegoaren aldamenen. Arantzazuko informazio puntu turistikoa apirilaren 27ra arte egongo da zabalik, hori ere goizez eta arratsaldean.

Bergarako eta Oñatiko turismo bulegoak dira bisitaldi gidatuak eskaintzen dituzten baka-

rrak. Gune historikoan barrena egiten dira bisitaldi horiek. Oñatin, apirilaren 17tik 21era, 12:00etatik 16:45era izango dira bisitaldiak eta gainerako eguntan aurrez ordua eskatu beharko da. Horrenbestez, ibarra hobeto ezagutu nahi duten debagoien-darrei eta kanpotik datozei ez zaie informaziorik falta izango.

## Mankomunitateak erabilitako olioia eta telak batuko ditu

*Oihalak batzeko 15 edukiontzi ipiniko dituzte*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Mankomunitateak erabilitako olioia, etxe hondakin arriskutsuak eta oihalak batzeko zerbitzua jarriko du abian. Horretarako, zerbitzua kudeatuko duen norbait eta ehunak aparte batzeko ibarra edukiontziz hornituko duen enpresa bat behar ditu Mankomunitateak.**

Erabilitako landare-olioa eta etxe hondakin arriskutsuak batzeko zerbitzua zeharka kudeatuko duena Debagoieneko Mankomunitateko zortzi udalez arduratuko da. Orain arte ibarreko zen-

bait herritan bakarrik batzen dute erabilitako olioia, baina Mankomunitateak zerbitzu hori herri guztietara zabaldu gura du.

Oihalak batzeko edukiontziak ibarrean jartzeko ardura hartzen duenak, berriz, guztira 15 edukiontzi eraman beharko ditu Mankomunitateak Zubillagan duen industria pabilioira.

Interesatuak datorren apirilaren 24ra arte izango dute eskera-orriak Arrasaten dagoen Debagoieneko Mankomunitateko bulegora eramateko. Horren ondoren, lehiaketa bidez aukeratuko dituzte lan horiek egiteaz arduratuko direnak.

## Diziplinako espedientea zabaldu die MUK bi ikasleri

*Marihuanazko madalenen afera dela-eta*

MAIDER OSA

**Joan den eguaztenean gertatutako afera dela-eta, Mondragon Unibertsitateak diziplinako espedientea zabaldu die bi ikasleri, eta unibertsitatek kaleratuak izan daitezke, Errektore Kontseiluak hala erabakiz gero. Unibertsitateak bi ikasle egin ditu errudun.**

Joan den eguaztenean Arrasateko Biteri ikastetxe nagusian gertatutako intoxikazioaren gainean prentsa-oharra kaleratu du Mondragon Unibertsitateak. MUKo 22 ikasle intoxikatu egin


ziren marihuanazko madalenen janda. Unibertsitateak "oso larritzat" jo du gertatutakoa, eta bi ikasle egin ditu gertatutakoaren errudun.

22 ikasle intoxikatu ziren guztira, eta Mondragon Unibertsitateak prentsa-ohar horren bidez jakinarazi duenez, horietatik 20k bazekiten madalenen marihuana zutela. Prentsa-ohararen gaineratu duenez, ikasle-etako inork ez zuen ospitalean ingresatu beharrik izan, nahiz eta 22 ikasle ospitaleko larrialdi zerbitzuetan atenditu zituzten. Kontu horrek zalaparta handia sortu du ikastetxean.



**Herritar ugari Arantzazun, bakearen alde**

Euskal Herri osotik joandako jendea batu zen joan den domekan Oñatitik Arantzazurako bakearen aldeko erromesaldian. Juan Mari Uriarte Gipuzkoako gotzainak ere hartu zuen parte ibilaldian. Gaur egun "ideologia arteko urruntzea gero eta handiagoa" dela esan zuen gotzainak, eta horregatik kezkatuta agertu zen: "Hurreratu beharrean, elkarrengandik gero eta urrunago dago jendea", esan zuen. Horregatik, gizarteak bakearen aldeko konpromisoan murgildu behar zuela esan zien batutakoei. Eta bidea elkarrizketa dela ekarri zuen gogora.



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Iñaki Irizar eta Nere Amaia Laskurain biologoak, ikerketaren egileak.

## Bisoi europarraren egoera aztertu dute bi bergararrek

*'Desagertzeaz dagoen karniboroa Goierrin' lanean*

EDU MENDIBIL


**Idoia Villate eta Jorge Gonzálezekin batera, Nere Amaia Laskurain eta Iñaki Irizar biologoek bisoi europarraren egoeraren gaineko lana kalera-tu dute. Lanak Lazkaoko Gerriko Ikerlan Beka eskuratu zuen, eta egubakoitzean aurkeztu zuten, Donostian.**

Bisoi europarra Europako ibai eta erreketan bizi den karniboro txikia da, eta antzina, Europako zati handi baten bizi zen, Iberiako Penintsularen iparraldetik Uraletaraino. Baina XIX. mendean, azkar urritzen hasi zen: jatorrizko banaketa eremuaren %80tik desagertu da dagoeneko, eta betiko desagertzeko arrisku handia dago. Europako ugaztunen artean, desagertzeko arrisku han-

dienetakoa duen espeziea da. Hala ere, harrigarria bada ere, Euskal Herriko zenbait erreketan bisoi europarrak daude oraindik.

Egubakoitzean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean aurkeztutako liburuaren egileek bisoi europarraren egoera aditzera eman zuten. Euren iritziz, espezie ezezaguna izateak ez dio mesederik egiten bisoi europarraren kontserbazioari: "Haren biologiaren hainbat aspektu iker-tu barik daude oraindik, eta, bestalde, espezie benetan bitxia izan arren, ez da batere ezaguna gure artean. Baldintza horietan, zaila da bisoiaren egoerak eskatzen dituen etenik gabeko zaintza, ikerketa, babesa eta era guztietako lanak era egokian diseinatu eta justifikatzea". Zientziaren arlokoa izan arren, liburua publiko zabalari dago zuzenduta.

## HAUTESKUNDEEN USAINAN



Jesus Mari Garitano, Bergara Aurrera, Bergarako Udalerako.



Mari Jose Altube, Ereitten, Oñatiko Udalerako.



Iñaki Iturri, Aretxa, Aretxabaletako Udalerako.



Dorleta Kortazar, Kontzejupe Eskoriatzako Udalerako.



Mireia Unamuno, Gertu gae, Antzuolako Udalerako.



Ainhoa Larrañaga, Aralar, Bergarako Udalerako.



Blanca Roncal, PSE-EE, Arrasateko Udalerako.



Paco García, PSE-EE, bigarren, Batzarretarako.

## Jakinarazi dituzte herri batzuetako plataformen zerrendako buruak

*Aralarrek, bestalde, Ainhoa Larrañaga aurkeztuko du Bergaran*

ENEKO AZKARATE

**Udal Hauteskundeetarako herriz herri sortu diren plataformetako batzuk jakinarazi dituzte alkategaien izenak. Beste alderdi politikoei ere jakinarazi dituzte herri batzuetan.**

Bergara Aurrera hautesleen plataformak Jesus Mari Garitano aurkeztuko du Bergaran alkate izateko. Orain dela lau urteko Udal hauteskundeetan bera izan zen EHko zerrenda burua, eta gaur egun zinegotzia da Sozialista Abertzaleen izenean. Aretxabaletan, bestalde, Iñaki Iturri izango da Aretxa plataformaren zerrendako burua. Eskoriatzan, Dorleta Kortazar SAKo zinegotzia

izango da Kontzejupe plataformako zerrendan lehen postuan joango dena, eta Antzuolako Gertu gae, ostera, oraingo alkate Mireia Unamuno aurkeztuko du. Bera izango da, gainera, AuBk Gipuzkoako Batzar Nagusietarako Deba-Urola barrutitik aurkeztuko duen zerrendako lehena.

**LEGEZ KANPORATUZ GERO ERE, AURRERA** AuB eta herrietako plataformak legez kanpo utziko balituzte, zer erabaki hartu hausnartzen ari dira azken egunotan. Txarrean ere presente egoteko bidea egingo dutela adierazi dute AuBko ordezkariak. Hauteskundeetan parte hartzea eragotziz gero, bere bozka-paperak egin eta etxeetan banatzea aztertzen dihardute.

**BLANCA RONCAL, ARRASATEN**

Arrasateko sozialistek ere jakitera eman dute, oraingo astean, alkategaiaren izena: Blanca Roncal zinegotzia izango da, Paco Garcíaoren ordezkari. Paco García, bestalde, Batzar Nagusietarako aurkeztuko dute, bigarren, Deba-Urola barrutitik.

**ARALAR: AINHOA LARRAÑAGA BERGANAN**

Aralarrek zalantzak izan ditu Bergaran zerrenda aurkeztu edo ez. Azkenean erabaki du aurkezte, eta Ainhoa Larrañaga abokatu angiozartarra aukeratu du alkategai izateko. Arrasaten, bestalde, Joxe Etxeberria izango da zerrendako lehena eta Batzar Nagusietarako zerrenda burua Deba-Urola barrutitik.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

## Zabalik

REBEKA  
UBERA

## Euskal hiria?

**B**adirudi laster herria hiriarengatik ordezkatu beharko dugula, gure lurraldeko garapenak martxa honetan jarraitzen badu behintzat.

Batez ere gure eskualdeko proposatzen duten lurren antolamendua, bereziki basatia da gure ingurumenarekin, gure lurrekin, gure mendiekin..., Lurraldearen Zatiko Plan famatuak (arkitekto talde batek egina, politikarrien agintepean) egiten duen proposamena kontuan hartzen badugu. Eta, gainera, hau guztia ibar honetan bizi garenekin kontatu gabe egin da, eztabaida sozialik gabe... Herritar asko eta asko gara ez garenok enteratu zertan dabilzan, ez dugu ulertzen erabiltzen dituzten hitz teknikoak, ez dakigu plan honek jarraitzen duen prozesua. Beraiei ere badirudi ez zaiela asko interesatzen beronen berri herritarro zabaltzea, nahiko isilpean ari baitira gure herrien etorkizuna antolatzen, gure lurak sailkatzen, lur bakoitza zertarako izango den erabakitzen: etxeak eraikitzeke, industriak kokatzeko, aisialdirako, Ekohiria... Baina..., ez duzue uste Debagoienean bizi garenok eskubidea daukagula gure eskualdearen eraikuntzan parte hartzeko? Edota erabakitzeke Euskal Herrian edo Euskal Hirian bizitzea nahi dugun?

Eskutitz hau aprobeztatu, hauteskundeak direla eta, gure ibarreko politikariei zera eskatu nahi diegu: herritarrokin ez gogoratzeke bakarrik botoa eskatzeke orduan, herritarren partaidetza eta eztabaida soziala bultzatu eta aurrera eramanez ezatela uneoro, denok baitaukagu zer esana gure herrien eta eskualdeen eraikuntzan, etorkizunean.

## Gaia jarrita

**E**ztabaidarako eta gogoetarako hainbat gai piztu dira datozen udal hauteskundeak direla-eta. Tartean, euskarari dagokion bat: hain zuzen ere, alkategaiek euskaldunak

izan beharko luketen iritzia azaldu dute hainbat eragilek, tartean, Kontseiluak. Eta, horren harira, Euskal Herrian euskararen aldeko konpromisoa hartu duten hainbat eragileren erakunde

horrek gizartean eta alderdi politikoetan iritzi horren aldeko korronea eta ardura bultzatzeko kanpaina bati ekin dio. Kezka hori inoiz baino indar handiagoz plazaratu da oraingoan.

UDAL HAUTESKUNDEETAN ALKATEGAIEK EUSKALDUNAK IZAN BEHARKO LUKETE?

## Euskara ez jakitea gero eta nekezago onartuko zaie hautagaiei, gure gizartearen zerbitzura daudela sinetsarazi nahi badute

**E**uskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, hauteskundeak hurbiltzean, hautagai euskaldunak eskatu ditu beste behin. Lehenago ere egin izan du eskaera bera Kontseiluak.

Euskararen legea argitara eman zenetik 20 urte bete direlarik eta belaunaldi berrien gehiengoa elebiduna, beraz euskalduna delarik, alderdiek iraganetik dakarten euskara eta euskal kulturarekiko inertzia kontraesankor horri oraindik ere eustea onartezina da. Gizartearen gehiengoaren nahiaren eta azken urteotan hainbat haur, gazte eta helduk egin duten ahalegin eskergaren aurka, oraindik alderdiek eskari horri entzungor egin eta euskal gizartean hautagai elebakar, erdaldun hutsak eskaintzea onartezina da.

Kontseiluaren ustez, udal eta foru hauteskunde hauetan aurkeztuko direnak euskal hiztunak izatea oso garrantzitsua izango da hizkuntz normalizaziorako. Herri honen ordezkari politikoak izango direnek bertoko hizkuntza ez ezagutzea larritzat jotzen du Kontseiluak. Gainera, euskaltzaleak eta abertzaleak diren alderdiek hautagai erdaldun elebakarrak aurkeztea are ulergaitzagoa da.

Kontseiluak aurtengo otsailaren 6ko jakinarazpenean adierazitakoaren eta alde zuzeneko aurretik alderdi guztiei bidalitako gutunaren arabera, hautagaiak euskal hiztunak izatearen

XABIER MENDIGUREN  
BEREZIARTU  
Kontseiluko idazkari nagusia

garrantzia azpimarratzen du: "Hizkuntz normalizazioa lortzeko denon parte-hartzea beharrezkoa da, gizarte eragile, instituzio, herri erakunde eta abarrena. Horregatik hurrengo maiatzetik aurrera gure udalak eta foru instituzioak zuzenduko dituzten pertsonak euskal hiztunak izatea lagungarria izango da euskararen garapenerako".

Alderdiei igorritako eskutitz berean beste eskaera bat ere egin zuen: "hauteskunde programetan euskararen sustapen eta normalizazioaren aldeko ekimenekiko zituzten asmoak azaltzea ere garrantzitsua izango zela, herritarrek beren botoa erabakitzean irizpide hori ere kontuan har zezaten".

Azken batean, bi gaiak elkarri estu loturik daude: hautagai euskaldunak

*"Herri honen ordezkariak bertoko hizkuntza ez ezagutzea larria da"*

*"Alderdiek gizartearen eskariari entzungor egiten jarraitzen dute"*

*"Hautagai erreleborik gabe, zaila litzateke gizarte euskalduna eraikitzea"*

*"Programetan euskararen sustapenaren aldeko ekimenak azaltzea garrantzitsua da"*

eskaintzea eta euskara eta euskal kulturaren aldeko egitarau onargarri bat aurkeztea koherentzia beraren barruan landutako bi proposamen dira, zalantzarik gabe. Izan ere, Euskal Herrian euskarak eta euskal kulturak duten ardatz eta erdigune izaera aitortzea da. Nekez sinets eta onar daiteke alderdien egitarau-proposamenik hautagaien test hori gaintzen ez badu; hitz batean esateko, euskararen errealitatea ezagutzen ez duen batengandik egiaz lagungarriak izango diren politikak etorriko direla ustea izatea oso zalantzarikoa da.

Gainera, urteak aurrera joan ahala alderdien baitan ez bada sortzen hautagai izateko erreleborik, hori seinale kezagarritzat hartu behar da euskal gizartearen gehiengoaren nahiarekiko eta zinez arduratzekoa litzateke, zeren oso zaila izango bailitzateke etorkizunean nahi dugun gizarte euskalduna eraikitzea, ezina dela ez esatearren.

Horregatik Kontseiluak uste du Euskal Herrian bertako hiru hizkuntzak ezagutzen dituzten hautagaiak behar direla, eta euskara ez jakitea gero eta nekezago onartuko zaiela hautagaiei benetan gure gizartearen zerbitzura daudela sinetsarazi nahi badute, beste edozein gizar-tetan bertako hizkuntza ez jakin eta bertan politika egitea onargarri nekez izango litzatekeen arrazoi berberengatik.

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: [goienkaria@goiena.com](mailto:goienkaria@goiena.com)

*Zein izan beharko litzateke etxe eraikuntza eredua gure ibarrerako?*

# Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA  
Eneko AzkarateERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendieta,  
Miguel Angel Elkoroberebar,  
Josemari Velez de MendizabalADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berezibar, Iratxe BengoaSAILETAKO ARDURADUNAK  
Goio Arana (Diseinua)  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,  
Natali Martínez, Izaskun Bolinaga,  
Ziortza Martín, Imanol ElortzaPRODUKZIOA  
Iban ArantzabalTESTUEN ZUZENKETA  
Sergio AzkarateHARPIDETZA ETA BANAKETA  
Julen Aranguren

LEHENDAKARIA  
Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA  
Iñazio Arregi

## OÑATI Maiatzean hasiko dira antibiotikoak banakako dosietan saltzen

Ohiko antibiotiko kaxak saldu beharrean, bezeroari medikuak agindutako kantitatea bakarrik saltzeko esperientzia pilotua abiaraziko dute Oñatin, maiatzean. Euskal Autonomia Erkidegoan, Oñatin bakarrik jarriko dute abian ekimen hori.

Hilabetez atzeratu beharra izan dute ekimena, botikak saltzeko ontziak falta zitzaizkielako.

Aste Santu ostean prentsaurrekoa egingo dute, Oñatin, Gipuzkoako Botikarien Elkargoko kide batek eta herriko medikuek. /A.I.

## ANTZUOLA 2.771.761 euroko aurrekontua onartu berri du Udalak

Joan den asteko martitzean, ezohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak, 2003rako aurrekontua onartzeko. Eta aho batez onartu zuten aurrekontua osoko bilkuran parte hartu zuten zinegotziek.

Esan bezala, 2.771.761 euroko aurrekontua izango du Udalak 2003rako; iazkoa erekin alderatuta, %20,4 handiagoa. Diru horretatik, 1.066.255 euro -aurrekontuaren %38,4, hain zuzen ere- inbertsioetara bideratuko dituzte. Ohikoa den moduan, hirigintzan eta etxebizitza eraikuntzan inbertituko dute diru gehien. /A.I.

## ELGETA Larrabiltzearra landa-lur izatea proposatu dute Udalean

Hirigintza, Obra eta Ingurumen batzordearen azken batzarrean, arau subsidiarioei egindako alegazioak berrikusi eta Larrabiltzearra landa-lur gisa uztea proposatu zuten; han etxeak egitea pentsatu zuten arren, oraingoz ez dute ezer eraikiko.

Larrabiltzearra ez da landa-lur izendapena gordeko duen bakarra: Sestoaldean ere etxeak egiteko asmoa zegoen, baina, besteak beste, eraikitze dagoen saihesbidea bertara aterako denez, proiektuak ez du aurrera egingo.



AINZANE GARDOKI

## ESKORIATZA

### Apirilaren 30ean inauguratuko dute Eskoriatzako udaletxea, erabat berritu ostean, eta egun horretan aurkeztuko dute Udalaren irudi korporatibo berria

Apirilaren 30ean, eguaztenean, inauguratuko dute Edorta Zubizarreta alkateak eta berritze lanak zuzendu dituen Jabier Egaña arkitektoak Eskoriatzako udaletxea. Orain dela urtebete pasatxo hasi zituzten lanak, eta tarte horretan erabat berritu dute, bai kanpoko aldetik, bai barruko aldetik. Udaletxea herritar guztiei irekia izatea gura zuten, eta hori lortzeko, oztopo arkitektoniko guztiak kentzen ahalegin handia egin dute.

Apirilaren 29an eta 30ean ez da udal zerbitzurik egongo, baina hurrengo egunetik aurrera, Hirigintza, Euskara, Idazkaritza, Alkatetza eta orain arte Olazar etxean egon diren Gizarte Zerbitzuak plazan dagoen udaletxean egongo dira. Bide batez, hilaren 30ean Udalaren irudi korporatibo berria aurkeztuko dute. /M.A.

## BERGARA

### Trenbidea egokitzeko hitzarmena sinatuko dute Udalak eta Aldundiak

Eguenean presazko batzarra egin zuen udalbatzak. Hala, Bergarako eta Soraluze udal bi herriok lotzen dituen trenbide zaharra bidegorri bihurtzeko asmoz Foru Aldundiarekin sinatuko duten hitzarmena onartu zuten EAJ-EA, Sozialista Abertzaleak eta PSE-EE alderdietako zinegotziek aho batez.

Hitzarmenaren helburua da Bergara eta Soraluze artean oinezkoak eta txirrindulariak ibiltzeko antzinako Vasco-Navarro trenbidearen plataforma egokitzea; 6,6 kilometro luze da, eta 1,55 kilometro Soraluzeko Udalar dagozko, eta 5,05, Bergarakoari.

Egokitze lanak egiteko, Sestra enpresak Bergarako eta Soraluzeko udalen eskariz egindako *Bergara eta Soraluze udalerrien arteko bidegorri proiektua* oinarrituko dira. Egokitzapen lanek 868.500 euro inguruko aurrekontua izango dute, eta bi fasetan egingo dituzte.

#### LANAK, BI FASETAN

Lehen fasea Soraluze-Osintxu zatia da; 2.360 metro ditu eta Aldundia arduratuko da hori konpontzeaz. Aurrekontua 366.732 eurokoa da, eta dituen baldintzengatik edozein une da egokia lanekin hasteko.

Bergarako eta Soraluzeko udalak, berriz, Osintxutik Bergarako herri guneraino iristen den zatiaz arduratuko dira; 4.240 metro ditu, eta 501.787 euroko aurrekontua. Finantzatzeko, udalok behar adinako zehaztu dute 2004 eta 2005. urteetako aurrekontuetan, hitzarmenaren jaso dutenez. /M.B.

#### Zertzelada

Lehen faseaz, Soraluze-Osintxu, Aldundia egingo da kargu; bigarrenaz, Osintxu-Bergara, Soraluzeko eta Bergarako udalak arduratuko dira


## ARRASATE

### Diputazioak behin betiko onartu eta gero, Egitamu Orokorra aurkeztu dute

Aurkezpen ekitaldian Xabier Zubizarreta alkatea, Amaia Larrañaga zinegotzia eta Juan Antonio Urdangarin Hirigintza Sailako teknikariburua egon ziren. Laburbilduz, bate-tik, nabarmendu zuten Egitamua urte askoko lanaren emaitza dela, herritarrendako erabilgarri izango den tresna dela eta

edozeinek eskura duela udaletxean. Bestetik, aldagarria dela; hau da, unean uneko egoerara eta beharretara egokitzeko gaitasuna izango duela.

Horrez gain, herritarrek izandako parte-hartzea azpimarratu zuten. Guztira 328 alegazio egin dizkiote Arrasate antolatzekeginiko planari. /U.M.



U.M.

Amaia Larrañaga, Xabier Zubizarreta eta J.A. Urdangarin, aurkezpenean.

## ARETXABAETA Arrakasta handia izan du ireki berri duten Poxpolin Gazte gazte-lekuak

Joan den egubakoitzean, hilaren 11n, zabaldu zuten Poxpolin Gazte gazte-lekua. Egubakoitzean, zapatuan eta domekan egon zen zabalik, eta gazte ugari hurre-ratu zen hara. Nerea Elortza gazte-lekuko arduradunaren esanetan, hiru egun horietan eguneko 25 lagun inguru izan dira gazte-lekuan. Gazteak lokaleko hormak zuriz margotzen ibili dira, eta gero gainean gura dituzten mazzakiak egingo dituzte. Lan horiek egiten, baina, oporren ostean jarraituko dute, gazte-lekua itxita egongo da-eta maiatzaren 9ra arte. A.I.

## ARAMAIO

### Apirilaren 27an, Sagardogile Eguna ospatuko dute aramaioarrek

Hirugarren urtez Sagardogile Eguna ospatuko dute Aramaion, herriko sagardogileei egindako lanarengatik esker ona adierazteko eguna. Ia 20 sagardogile gonbidatu ditu antolatzaileak, Txirritola Euskara Elkar-teak. Horrela, apirilaren 27an plazaren bueltan egongo dira, eta gura duenak Aramaion egindako sagardoa edateko aukera izango du. Pintxoak eta taloak ere egongo dira. Horrez gainera, aurten sagardogintzaren gaineko argazki erakusketa ipiniko dute eta sagardoa egiteko tresnekin muztioa egingo dute. /U.M.

## LEINTZ GATZAGA Alkateak deitutako herri batzarrean zortzi gatzagar egon ziren

Udal hauteskundeak gertu daudela-eta, egora zein den azaltzeko joan den apirilaren 10ean herri batzarrean deitu zituen herritarrek Gatzagako alkate Joxerra Agirreurretak. Zortzi herritarrek bakarrik erantzun zioten alkatearen deialdiari: "Triste da, baina alde guztietako kontua da; jendea ez dago konpromisoak hartzeko", esan digu Agirreurretak. Iñaki San Pedro zinegotzia, berriz, gertu dago hurrengo agintaldian lanean jarraitzeko, baina taldea osatzeko zailtasun handiak dituela azaldu digu. /A.G.

## Kike Amonarriz

FILOGOIA ETA SOZIOLOGIA

# “Ikuspegi baikorra izatea, itxaropenari eustea eta umore puntu bat edukitzea beharrezko dira une zailenetan ere. Horrek indarra ematen du”

**G**azteek darabilten euskaren gainean jardun dugu Kike Amonarriz soziologoarekin. Izan ere, gazteen jergen gainean eta, batez ere, poltsikoko telefonoen mezuen bidez darabilten hitz berrien gainean egin zuen berba joan den astean Antzuolan. Hitzaldiaren izenburua: *Eske hau superguaya da*.

ENEKO AZKARATE

### Beste euskara bat asmatzen dihardute gazteek?

Hizkuntzak beti dihardu aldatzen, eta gazte belaunaldi berriek beti eransten diote bere ukitua hizkuntzari. Ez nuke esango beste euskara bat asmatzen dihardutenik, baizik eta egoera soziolinguistiko eta euskaldungoaren barne egitura erabat aldatu direla azkenaldian. Horrek ekarri du hizkuntzaren baitan sortzea sekula sortu ez diren fenomenoak. Gaur egun, umeen eta gazteen artean, euskaldunen kopurua oso handia da. Baina, era berean, ume eta gazte horiek elebidunak dira, askoren eta askoren gurasoak erdaldunak dira, asko inguru erdaldunetan bizi dira, ume eta gazte horiek guztiak telebista euskaraz ikusi dute, irakurri dituzte euskarazko liburuak...; ezagutzen dituzte euskara batua, euren euskalkia eta beste euskalki batzuk... Hor gertatzen ari diren fenomenoak guztiz berriak dira. Bestalde, batetik, badira, jakin arren, euskaraz egiten ez duten gazteak eta, bestetik, euskaraz egin, bai, baina beste modu baten egiten dutenak. Hori zergatik den? Bate-

tik, jaso dituztelako askotariko eragin linguistikoak; bestetik, sortzen ari delako boterearen hizkuntzaren kontrako gazte hizkera bat. Kasu horretan, boteretzat ulertu behar ditugu irakaskuntza eta familia. Iturri asko nahasten dituen hizkera bat da: nahasten du batua, nahasten ditu euskalkiak eta nahasten ditu erdarakadak...

### Eta hori ona da?

Beharbada, hor daukagun hutsune larriena da hizkuntzaren sorkuntza hori, adierazkortasuna lortu nahi denean, lokuzioak erabili nahi direnean, esamolde indartsuak erabili nahi direnean, jeneralean, erdarara jotzen dela. Hori interesgarria eta kezagarria da. Horregatik oso interesgarriak dira, esaterako, *Berbeta berua* eta horrelako liburuak, berbeta horiek gazteen artean sozializatzeko.

### Berba egiteko beste modu bat sortzen dihardute gazteek, hortaz.

Berba egiteko eta idazteko beste modu bat sortzen dihardute, bai. Orain arte, idazketa modu formala ezagutzen dugu, eta orain, berriz, sortu da idazteko modu informala: bai txateatzerakoan, bai agendetan, bai mezuak telefonoz bidaltzerakoan... Orduan, gazteek gaur egun bi kode dituzte: kode formala eta kode informala, eta biak dauzkate, bai ahoz, baita idatziz ere.

### Horrek guztiak erakusten digu euskara normalizatuta dagoela?

Hizkuntza zabaltzearen ondorio da hori. Egin kontu, orain arte herri txikietan euskaraz berba egiten zen oso modu trinkoan. Erdararen eragina oso txikia zen. Orain, berriz, zelanbait esatearren, euskararen eza-gupena eta erabilera izugarri zabaldu da, baina dentsitatean galdu egin dugu, eta hor, erdararen eragina eta ditugun hutsuneak nabarmenagoak dira, neurri handi baten, euskarak dituen erreferentzia sinboliko gehienak nekazaritzari dagozkionak direlako. Hain zuzen ere, hor irau du bizirik euskarak. Baina orain zer gertatzen zaigu? Bada, hiritartu egin garena, baina ez dau-

kagula gaur egungo hiri bati legokiokeen erreferentzia sinbolikorik, eta horiek sortu egin behar dira.

### Orduan, hizkuntzaren ikuspuntu batetik, fenomeno berri horiek normalizazioaren kalterako dira?

Ez. Nik uste dut hau beste fase bat dela. Azken baten, berba egiten dena da entzuten denaren eta inguruak ematen duenaren ondorio. Nik orain 40 urte ditut, eta 15 urte nituenean, gazteen artean erabiltzen genuen hizkuntza bakarra, praktikan, erdaraz zen. Horrek esan nahi du, erabilerari dagokionez, hutsetik abiatu garena euskararen berreskuratze prozesuan. Eta, gainera, egoera minorizatuan, non denak elebidunak garen eta, gainera, erdarak hizkuntza nagusiaren funtzioa betetzen duen. Hortaz, praktikan ia ezinezkoa da hortik erabilera sozial normalizaturik etortzea. Horrek esan nahi du egoera sozializatu anormalean bizi garena oraindik. Kontua da erabilera sozial hori orokortzen den neurrian, umeek eta gazteek duten oinarri linguistiko gero eta hobea den neurrian, eta erabilera funtzio askotara zabaltzen den neurrian, erabiliko den euskara bera ere hobea izango dela.

### Hala ere, askotan kezkatzen gara gaur egungo ikastolako neska-mutikoei *Leikedostazu*, *Jo egin dosta*, *Eske hau superguaya da* eta horrelakoak erabiltzen dituztelako eta euskaraz txarto egiten dutelako.

Trantsizio egoeran gaudela uste dut. Egin kontu gaur egun ume eta gazte guztiek zer entzuten duten. Entzuten dute aditz taula osoa batuaz, aditz taula osoa euskalkian eta beste euskalki batzuetan ere. Orduan, gazteek egin dutena da adostasun linguistikora iritsi. Hori ez da oso larria, baldin eta badakizkitez ondo aditz taulak, hau da, momentu baten euskarazko azterketak ondo egiteko gauza baldin badira. Hor daukagu korapilo bat ondo askatu gabea, eta da euskalkien garapeneren kontua. Nire iritziz, une honetan euskalkiak



### BERRESKURATZE PROZESUA

**“Orain dela 25 urte, gazteen artean erabiltzen genuen hizkuntza bakarra erdaraz zen. Hortaz, erabilerari dagokionez, hutsetik abiatu gara euskararen berreskuratze prozesuan”**

### BASERRITAR IZATETIK HIRITAR IZATERA

**“Hiritartu egin gara, baina euskaran ez daukagu gaur egungo hiri bati legokiokeen erreferentzia sinbolikorik, eta horiek sortu egin behar dira”**


### POLTSIKOKO TELEFONOEN MEZUAK

**“Gipuzkoako edozein herritan, galde iezaiezu gazteei ea zer esan nahi duen ZMZ-k, eta esango dizute: ‘Zer moduz?’; eta galde iezaiezu ea zer den ZLZ, eta esango dizute: ‘Zelan zagoz?’”**

### EGOERA POLITIKOA

**“Gerra baten, aliantzak oso inportanteak dira, askotan, norberaren indarrak baino askoz ere garrantzitsuagoak. Zoritxarrez, Euskal Herritik kanpo aliantza asko galdu ditugu”**





'ARGIA' ASTEKARIA

hibrido bihurtzen ari dira, nahasten ari dira, euskalki desberdinetako jendea batzen delako herrietan edo euskalki desberdinetako irakasleak batzen direlako ikastetxeetan, edo euskalki desberdinetako jendea irteten delako telebistan. Garai baten herri bakoitzak bere euskalkia zuen moduan, momentu honetan euskalkien nahasketa egoeran gaude. Nik uste dut etorkizuna nahasketaren bidetik etorriko dela, nahiz eta herri bakoitzak dituen baliabideak ahalik eta gehien ustiatu beharko dituen, betiere ikuspegi irekitik. Esate baterako, Tolosako gazteen artean, gaur egun, "Zelan zagoz?" esatea aberasgarria iruditzen zait. Baliatu behar dugu euskalkiez, baina atea zabalik.

**Kontua da horrelako esamoldeak nahita eginda dauden edo hizkuntza menderatzen ez delako esateb diren.**

Hor dago koska. Hori aitortu behar diogu geure buruari. Zelan uztartu hizkera estandarra eta herri hizkerak eta horri zelan eman irtenbidea. Nik defenditu izan dut euskalkien erabilera libreagoa: euskara estandarren zuzentasuna ahalik eta gehien bermatu behar dugu, bai ahozko hizkeran, baita estandarrean ere, baina kaleko hizkeran joera berriak sortuko zaizkigu, eta joera berri horien zati batzuk argot berri gisa hartu beharko genituzke. Baina arazoa da mugak ez daudela batere garbi.

**Deigarria da, zuk aipatu duzun moduan, bizkaierako aditzak erabiltzen hasi direla Tolosako gazteak.**

Gipuzkoako edozein herritan galde iezaiezu gazteei ea zer esan nahi duen ZMZ-k, eta esango dizute: "Zer moduz?" Eta galde iezaiezu ea zer den ZLZ, eta esango dizute: "Zelan zagoz?"

**Esaten dut deigarria dela hemen, geure inguruan, sarri entzun izan diegulako batez ere zaharrei-eta, Tolosa inguruko euskara dela garbiena, politena, zuzenena...**

Orain dela 25 urte Tolosan ez zen apenas euskararik egiten. Mito hutsa da hori.


Horrek zerikusia dauka garai baten Gipuzkoako burgesia aurrerakoiena Tolosa aldean zegoelako edo administrazioa ere bertan zegoelako eta, orduan, Tolosako euskara zen eredu-garria, geroago abadeena izan zen moduan. Boterearen hizkera da eredu-garria. Gaur egun ere gauza bera gertatzen da; alegia, euskara txarrena da gazteendako eredu-garriena. Zergatik? Hiriburuetakoa edo herri handietakoa zaielako eredu-garria, eta herri txikietako euskara on hori berba egiten dutenak konplexuz beteta daude. Hala ere, berriro diot, nire iritziz, gazteak konturatu behar dira hizkuntza oso ondo jakin behar dutela, euskara zuzena, aberatsa eta erregistro askotakoa ikasi eta ondo erabiltzeko gauza izan behar direla.

**Bateragarriak dira soziolinguistikaren gaineko ikerketa serioak eta umorea?**

Bai, bai. Nire kasuan, gainera, umorea lantzen hasi nintzen ikuspegi euskaltzaletik. Umorea lantzerakoan, hizkuntzaren aldagaia oinarri sendoenetako bat izan da nire kasuan. Gero, gazte hizkeraren gai hau praktikatik sortu zaigu; alegia, umorea lantzerako orduan, askotan baliabideak faltan izan ditugulako eta asmatu behar izan ditugulako eta ereduak sortzen saiatu garelako. Jardun publikorako ere oso lagun-garria izan zait umore lanketak eskaini didan eskarmentua, hitzaldi serioak erakargarriagoak izan daitezten.

**Zer iritzi daukazu Fermin Muguruzari lehengoan, Madrilen, musika esparrukoek egin zizkieten txistuen gainean?**

Horrek erakusten du hemendik kanpo, Katalunia eta Galizia aparte utzita, ez daukagula elkartasungune garrantzitsurik, eta horretan ere sakon hausnartu beharko genuke. Gerra baten, aliantzak oso inportanteak dira; askotan, norberaren indarrak baino askoz ere garrantzitsuagoak. Zoritxarrez, Euskal Herrikan kanpo aliantza asko galdu ditugu, eta hori berreskuratzekeo dinamikak sortu beharko lirateke; jakina, horretarako baldintzak jarrita.



AINTZANE IRIZAR

## "Jendeak barre egiteko premia dauka, eta hori ona da"

**Bizimodua umore handiagorekin hartuko bagenu, poziago eta geure buruarekin gusturago biziko ginateke?**

Bai, seguruen bai. Ikuspegi baikorra izatea, itxaropenari eustea eta umore puntu bat edukitzea beharrezko dira une zailenetan ere. Izan ere, horrek indarra ematen du.

**Eta politikan ere badago tokia umorearendako?**

Gaur egun eta hemen, toki txikia dago politikan umorearendako. Agian, gehiago umore beltzarendako beste ezertarako baino.

**Euskaldunak serioak garela entzun dugu behin baino gehiagotan. Horrela da?**

Hori esaten dute, baina ez dut uste horrela denik. Umore diferentea daukagu euskaldunok, eta umorea, gainera, gara-

tu ere egiten da. Hizkuntzarekin batera dihardugu garatzen umorea. Eta, alde horretatik, ustekabe atsegina izan da ikustea, esate baterako, gure herrian, Tolosan, azken hilabeteotan Leidor zinema hiru aldiz bete dela eta hiruretan euskarazko umorezko antzerkiekin bete dela. Hori gaur egun gertatzea zerbaiten adierazgarri bada. Jendeak barre egiteko premia dauka, eta hori ona da.

Podiuma

# Aitor Otxoa | ESKIATZAILEA |

**P**anticosan jokatu berri den Euskal Herriko Mendiko Eski Txapelketa irabazi du Aitor Otxoa oñatiarrak. Aste Santuko oporrak aprobetxatuz Alpeetara eskiatzera joatear zela tartetxo bat egin digu Panticosako probaz eta mendiko eskiaz berba egiteko.

**Panticosan egindako eski zeharkaldian Euskal Herriko txapeldun izan zara. Esperotako garaipena izan da?**


Ez, ezustekoa izan da. Euskaldunok zenbait txapelketatan hartu dugu parte, eta Gaizka Itza eta Joseba Ormazabal ni baino hobeto ibili dira. Horiek, igotzen, gehienetan bost minutu inguruko aldea ateratzen didate. Panticosan ere, azken igoeran, nire aurretik zeuden, baina jaietsiera oso luzea zen, eta hor lortu nuen proba irabaztea.

**Haizea izan ei da probako etsai nagusia.**

Bai, haizeak asko gogortu zuen proba. 1.800 metroko desnibela zuen eta bi gailur igo behar ziren, baina egoera ikusita, antolatzaileek bi puntetara ez igotzea erabaki zuten, eta desnibela 1.500 metroan geratu zen.

**Noiz hasi zinen mendiko eskian?**

20 urte nituela hasi nintzen eskiatzen. Mendian ibiltzea oso gustuko dut, eta pistako eskia probatu nuen



Euskal Herriko mendiko eski txapelduna da Aitor Otxoa.

**“Espainian oso maila altua dago, eta beste herrialde batzuetan, zer esanik ez. Jendeak urte askoan dihardu mendiko eskia egiten”**

**“Mendiko eskiaren alderdi politena jaietsiera da: denbora luzez igo ondoren, jaietsiera dago, eta aprobetxatu egin behar da”**

lehenengo. Denboraldi hasieran, pistetan ibiltzen naiz eta gero, denboraldia aurrera joan ahala, mendizeharko eskia egiten dut. Txapelketetan iaz hasi nintzen.

Orduan jokatu zen lehen aldiz Euskal Herriko Txapelketa. Aurten jende askok hartu du parte, batzuk lehiatzen eta besteak ibilbidea eginez.

**Euskal Herriko Txapelketaz gain, beste lehiaketarik probatu duzu?**

Hainbat lehiaketatan hartu dut parte: Candanchun eta San Isidron, Espainiako Kopako proba bana egin ditut. Pierra Mentan ere izan nintzen; munduko lasterketa gogorrena da, lau eguneko, eta hori prestatzen ibili gara aurten. Gero etorri da Euskal Herriko Txapelketa, eta bakarra gelditzen zait, Italian, Mezzalama, 40 kilometroko proba. Espainian oso maila altua dago. Jendeak urte askoan dihardu mendiko eskia praktikatzen. Eta gainerako herrialdeetan, Italian eta Frantzian, zer esanik ez.

**Zein dira mendiko eskiaren alderdi politena eta gogorrena?**

Politena, jaietsiera. Ia denbora osoan mendian gora joan eta jaietsiera bakarra izanik, aprobetxatu egin behar da; gogorrena, berriz, igotzea da. Hankean pisu handia daramagu, eta horretara ohituta ez gaudenez, teknika beharrezkoa da, batez ere, elurra gogorregia dagoenean.

**Aste Santua eskiatzeko aprobetxatuko duzu aurten, ezta?**

Alpeetan egongo naiz hamar egunean. Monte Rosa bira, bost eguneko zeharkaldia egingo dugu lehenengo eta gainerako egunak mendian eskiatzeko aprobetxatuko ditugu. Lagun giroan, ez lehiatzen.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Kirolaburrak



TRIALSINA/ARETXABALETA

Gipuzkoako Trialsin Txapelketa amaitu ostean, Markel eta Nagore Uriarte anai-arreba aretxabalarrek Open Norte Txapelketari ekin diote. Arantzazun jokatu zen joan den domekan txapelketako aurtengo estreina-ko proba. Bertan bigarren postua eskuratu zuen Markel; Maialenek, berriz, hirugarrena. Txapelketa hasi besterik ez da egin, baina aurrerantzean ere emaitza onak lortzea espero dute. Iaz Markel bigarren amaitu zuen lehia eta aurten mailari eutsiko diola pentsatzen du.

PIRAGUA/DEBAGOIENA

Mondragon Unibertsitateko Kirol eta Osasun Sailak Piraguismo ikastaroa antolatu du. Piraguan ibiltzen ikasi gura duten guztiei zuzendutako ikastaroa da. Parte-hartzaileek maiatzaren 5etik 8ra jasoko dituzte eskolak Albinako urtegiaren, 18:45etik 20:15era, Ur 2000 enpresako monitoren eskutik. Ikastaroak 50 euroko prezioa du, baina debagoiendarrek eta Mondragon Unibertsitateko ikasleek 36 euro ordaindu beharko dituzte. Izena apirilaren 30a baino lehen eman beharko da, ETEOKo Kirol eta Osasun Sailera joanda edo telefonoz honako zenbaki honetara deituta: 943 71 80 09 (Iker).

TXAKUR LERAK/BERGARA

Gorlako txakur leren lasterketaren X. aldia modu berezian gogoratuko du Axen Garitano bergararrak, ez hamargarren aldia izan delako, lehen aldiz proba irabazi duelako baizik. Eguraldi eguzkitsua lagun, inoiz baino ikusle gehiago inguratu zen Gorlako proba ikustera. 29 musher ibili ziren euren txakurrak gidari zituztela, eta azkenean lehen hiru lehiakideen arteko tartea oso txikia izan zen: Axen Garitano sailkatu zen lehen postuan (25'21"), Iker Ozkoidi bigarren (25'27"), eta Iban Uriondo hirugarren (25'40").

DOKE JOKOA/ARRASATE

Dokea, Arrasaten, antzinatik datorren jokoa da. Par- taideak dauden lekutik zortzi metrora marra bat egin eta ingurura txanponak botatzen datza. Puntu gehien txanpona marrantik gertuen botatzen duenak lortuko ditu. Bestalde, marran sartutako aiztoaren kontra jotzen duten txanponak edo haren bueltan egindako laukiaren barrura sartzen diren puntuazio berezia eskuratuko dute. Joko berezi horrekin hitzordua datorren Egubakoitz Santuan izango da Arrasaten. Goizeko hamaiketan Monterronen batuko dira elkarte gastronomikoetako kideak, eta horien artean irabazle ateratzen diren herriko zinegotzien aurka jokatuko dute.

XAKEA/ARRASATE

Arrasateko San Andres Xake Taldeko Luis Angel Ortégak eta Josu Tornayk apirilaren 22tik 27ra Subilla Gasteiz herrian (Araba) jokatuko den Euskadiko Xake Txapelketan hartuko dute parte. Fran Miguel aretxabalarrek ere txapelketan parte hartzeko txartela lortu zuen, baina ez joatea erabaki du. Xakelari biok, hortaz, Euskal Herriko 24 jokalaririk onenen artean ibiliko dira; tartean izango dira Felix Izeta eta Mario Gómez maisuak.

GOIENKARIA SARIA


Aste bukaerako emaitzak: Aretxabaleta 1 - Tolosa 2 / Bergara 5 - Zarautz 0 / Aloña Mendi 1 - Trintxerpe 0 / Elgoibar B 1 - Mondra 4

ASTEKO JOKALARI ONENAK

- 1. Xabi Camino (Aloña Mendi) 3 puntu
- 2. Jon Muruamendiaraz (Mondra) 2 puntu
- 3. Gorka San Vicente (Bergara) 1 puntu



Xabi Camino  
Aloña Mendi



Jon Muruamendiaraz  
Mondra



Gorka San Vicente  
Aloña Mendi

**Xabi Camino**  
Aukera ugari Aloñak, baina gol bakarra Xabik.

**Jon Muruamendiaraz**  
Jonek golak binaka sartzen ditu. Dagoeneko 32 gol!

**Gorka San Vicente**  
Ez zen Jon baino gutxiago izan. Gorkak ere bi gol!

SAILKAPEN OROKORRA

- 1. Jon Muruamendiaraz (Mondra) 17 puntu
- 2. Gorka San Vicente (Bergara) 16 puntu
- 3. Xabi Camino (Aloña Mendi) 10 puntu
- 4. Jon Altzola (Bergara) 9 puntu
- 5. Eric García (Aretxabaleta) 9 puntu



Jon Muruamendiaraz  
Mondra



Gorka San Vicente  
Bergara



Xabi Camino  
Aloña Mendi



Jon Altzola  
Bergara




Eric García  
Aretxabaleta

# Jarri sasoiian



**EROSKI**

Erosten Jakin



# e-debagoiena

ETORKIZUNA HURBILTZEKO TE ACERCAMOS EL FUTURO



*Familiako kide bat gehiago.*



# Goienka2a

Eguaztena / 2003ko apirilaren 16a

Kultura  
eta  
aisialdia



Apirilaren  
16tik 30era



## TOTI EFEKTUA

**Totiren nobelak euskal 'best seller' bihurtu dira, eta edonon jendea erruz erakartzen du karismadun emakume horrek**

**E**uskal emakumearen papera *Erdi Aroan*. Horra hor Toti Martínez de Lezea idazleak (Gasteiz, 1949) joan zen astean Oñatin egin zuen hitzaldiaren izenburua. Horretaz dezenteki idazleak, eta gustura ematen ditu azalpenak. Baina ez gai horretaz bakarrik: beste hamaika arloz ere badaki, eta informazio dokumentalaz gain, bere iritzi eta hipotesiak ere plazaratzen ditu. Hala egin du GOIENKARIArekin berba egiterakoan ere. LEIRE KORTABARRIA /15



## Añai erretegia

- Eskaintza** **Ibardeaga 32 / ARAMAIO**  
945 44 51 01
- Bataio eta jaunartzeak
  - Kintadak
  - Karta
- Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
  - Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



## Baster-Alde

- Eskaintza** **Galartza auzoa / ARETXABALETIA**  
943 79 24 58
- Menua eta karta
  - Ezkontzak
  - Jangela: 160 lagunendako
  - Jaunartze eta bataioak
  - Kintadak
  - Terraza
  - Aparkalekua
- Astelehenetan itxita



## Goikoetxea jatetxea

- Eskaintza** **Olaeta auzoa / ARAMAIO**  
945 45 01 71
- Menua eta karta
  - Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
  - Bi jantoki: 100 eta 30 lagunendako
  - Aparkalekua, futbol zelaia eta terraza
- Berezitasunak**
- Babarrunak (sakramentuarekin)
  - Bildotsa labean
  - Etxeko postreak
  - Bakailaoa pil-pilean
  - Ardoetan eskaintza zabala




## Pildain jatetxea

- Eskaintza** **Udala auzoa 14 / ARRASATE**  
943 79 11 65 / 943 77 18 40
- Eguneroko menua
  - Lagun arteko afariak
  - Bataio eta jaunartzeak
  - Ogitartekoak eta kazuelatxoak
- Berezitasunak**
- Bildotsa laban erreta
  - Babarrunak
  - Arraina
  - Etxean egindako ogia



## Taberna-Berri jatetxea

- Eskaintza** **Durana 24-26 / ARETXABALETIA**  
943 79 20 67 / 943 79 49 41
- Menua
  - Enpresa bazkariak
  - Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
  - Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako
- Berezitasunak**
- Bakailao entsalada epela
  - Oreina Oporto saltsan
  - Arrain parrilada




## Torrekua jatetxea

- Eskaintza** **Ibargarai 37 / BERGARA**  
943 76 50 99
- Eguneroko menua
  - Karta
  - Kintadak
  - Bataio eta jaunartzeak
- Berezitasunak**
- Batik bat arraina
  - Itsaskia
  - Txuletak



## Unzueta jatetxea

- Eskaintza** **Zabola auzoa / ARAMAIO**  
945 44 50 95
- Eguneroko menua
  - Karta
  - Bataio eta jaunartzeak
  - Lagun afariak
- Berezitasunak**
- Parrilla: Okela eta arraina
  - Etxeko postreak
- Egunero zabalik



## Zotz jatetxea

- Eskaintza** **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**  
943 78 35 45
- Eguneroko menua
  - Ogitartekoak
  - Hamarretakoak
- Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandetan itxita

HITZALDIAK/ 'EUSKAL EMAKUMEA ERDI AROAN' HITZALDIA EGIN ZUEN TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA IDAZLE EZAGUNAK OÑATIN

# Euskal emakumea, Totik ikusita

'EMAKUMEA GUK USTE DUGUN BAINO PISU HANDIAGOA ZUEN ERDI AROKO EUSKAL HERRIAN', DIO TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA IDAZLEAK

LEIRE KORTABARRIA


**H**istoriako kronikei begira, ematen du emakumeak ez zirela existitzen Erdi Aroko Euskal Herrian: baina horixe existitzen zirela, eta pisu nabarmena zuten", dio Toti Martínez de Lezea idazleak. Ez da historialaria, baina gai horren gainean asko ikertu duela erakutsi zuen.

Toti Martínez de Lezea idazle gasteiztarrak genero berri bat inauguratu zuen, 1998an, *La calle de la judería* eleberriarekin: euskal nobela historikoa. Benetako egoera, une historiko, gertakari eta pertsonak hartzen ditu ardatz, eta horiei, nobela-fikzioa gehitzen dizkie. Hasiera-hasieratik arrakasta handia izan zuen, eta euskal idazle ezagunenetakoa da gaur egun.

Europako eta Euskal Herriko historia ikertzen du Totik, eta horko zirrikituak eta alde ezkuak ditu gustuko. Besteak beste, emakumeok garrantzi handia dute Totiren nobeletan: "Gizonezkoek, botere politikoak... idatzitako kroniketarik kanpo", diosku Martínez de Lezeak. "Ez naiz historialaria, ezta antropologoa ere; hortaz, emakumeon papez berba egiteko nire pertsonaiotan oinarritzen naiz", dio idazleak.

## ETORKIZUNA ERABAKITZEKO GAUZA

Nekazaria, burgesa, erregina, judutarra, sorgina, amazte... Mota guztietako emakumeak




### 'LA CALLE DE LA JUDERÍA'

Jaioterrian, Gasteizen, kokatu zuen idazleak bere lehen nobela. XV. mendean Gasteizko alde zaharrean bizi den konbertitutako judutar familia baten istorioa kontatzen du.



### 'LAS TORRES DE SANCHO'

Iruñeko Erreinua, XI. mendea. Sancho III.a Garcés erregeak bere dimensio politiko handienera eraman du Euskal Herria. Bizkaiko eta Gipuzkoako konderrien garaia erada.




### 'LA HERBOLERA'

Anboto mendiaren magalean jaio den neska batek sendabelarrak erabiltzen ikasten du, eta Mari gurtzen du. Sorginkeria egotzi eta horregatik jazarri egiten dute neska.




### 'SEÑOR DE LA GUERRA'

Debagoiengan girotutako istorio horrek Oinaztarren eta Ganboatarren arteko norgehiagoka kontatzen digu. Mondra-goeko erreketak mugarri izan zuen aro nahasia.



### 'LOS HIJOS DE OGAIZ'

1328an, Frantziako eta Nafarroako Carlos I.a oinordeko barik hiltzean, nafarrek bertako errege bat eskatzen dute. Lehorte, izurrite beltza eta gosetea zabalduko dira Nafarroan.




### 'LA ABADESA'

Maria Esperanza bilbotarrari Espainiako Fernando erregearen alaba izatea onartzen dio. Bere sustraian bila hasiko da monasterio bateko abadesa bihurtu den emakume hori.



### 'LA VOZ DE LUG'

Kristo aurreko 25. urtean erromatarrek ia mendean dituzte tribu asturiar eta kantabriarrak, eta Luam asturiararen eta Publio Carisio erromatarren arteko gerra piztuko da.



### 'EL MENSAJERO DEL REY'

*Euskal Herriko Leizendak* liburuaren ondoren, gaztetxoendako idatzitako bigarren liburua. Antso Azkarrak Nafarroatik Marokora egin zuen bidaiaren berri ematen digu.

daude Toti Martínez de Lezearen nobeletan: "Gaur egun gertatzen den moduan", dio Totik. Azaltzen duenez, emakumeak guk uste dugun baino botere handiagoa zuen Erdi Aroan: "Ez politikan edo bizitza publikoan; baina bai, ordea, eguneroko bizitzan".

"Ikasi eta bere irrikak gaitzakeen emakumeak. Etxeko administratzaileak ziren, adibidez, marinelen herrietan, gizona kanpoan zegoelako. Eta oinordeko baziren, oinordekotzaren gainean eurek erabakitzen zuten. Emakume indartsuak zeuden, euren etorkizuna erabakitzeko aukera zutenak. Arrasaten, esate baterako, emakume errementariak egon ziren. Askotan base-ria alabak jasotzen zuten herentzian; eta ezkontzean, gizonak deitura aldatzen zuen, seme-alabek etxeko izena gorde zezaten", azaltzen du idazleak.

## ASTURIARRAK ETA EUSKALDUNAK

Baina idazle arabarrak ez du eskusiboki emakumearen gainean idazten; irrika asko ditu.

*La voz de Lug* nobela, adibidez, Kristo aurreko asturiarren gainekoa da. Totik antzekotasun harrigarriak aurkitu ditu Asturiako eta Euskal Herriko ikur-eren, toponimoen... artean. Debagoiena ere izan da bere istorioen kokaleku, *Señor de la Guerra*-n, esaterako. "Oso ibar ederra da, harreman estua dut Debagoienarekin. Aramaiotik Oñatira guztia arakatu nuen, nire nobela girotu ahal izateko", dio.

## TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA / IDAZLEA

*"Historia ofizialaren azpian dagoenaren bila ibiltzen naiz beti"*

**H**istoria da bere pasioa, eta orain arte idatzituen eleberriek berriena, gazteendako nobela bat, laster kaleratuko dute Euskal Herriko historiako kapituluak dituzte ardatz. Formula horrek Euskal Herriko idazle arrakastatsuenetakoa bihurtu du Toti Martínez de Lezea.

## 1998tik hona bederatzi liburu idatzi dituzu...

Asko harritu egiten dira, baina nik dokumentazeari eta idazteari zazpi edo zortzi ordu eskaintzen dizkiot egunero. Beste edozein lanbide bezalakoa da hau. Onartu egin behar dut, ordea, irudimen handia izateak asko laguntzen didala.

Erdi Aroak asko erakartzen zaitu, ezta?

Bai, batez ere X.etik XV. mendera arteko aroak. Historiako garai liluragarria da, gizadiarendako abentura handien garaia. Arkitekturaren Erromanikotik Gotikora pasatu zen; margogintzan perspektiba deskubritu zuten; idazle, poeta eta filosofo handien garaia izan zen. Gizartearen aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren: feudalismoa desagertuz zihoan eta burgesia jaio zen... Baina kontraste handiak egon ziren: adibidez, sorgin-ehiza hasi zen, 1500etik 1800era. Eliza Katolikoak sineskeria zaharrak suntsitzeko asmoaren barne uler-tu behar da hori. Euskal sorginak, adibidez, amek eta amonek eutsitako tradizioa jarraitzen zuten emakumeak besterik ez zen.



Oñatin hitzaldia egin zuen Toti Martínez de Lezeak apirilaren 10ean.

Zure historia ikerketetan kontraesanak aurkitzen dituzu?

Bai; izan ere, historiaren bertsi ofizialaren azpian dagoenaren bila ibiltzen naiz, eta gauza interesgarriak aurkitzen ditut. Har ditzagun Erdi Aroko Euskal Herriko hainbat lege eta debeku. Adibidez, bazituzten legeak emakumeek kolpatutako edo iruzur egindako gizonendako; horrek esan nahi du kasu horietariko asko zeudela; bestela, zertarako egin legea?

Nik baditut hipotesi batzuk: adibidez, uste dut Historiurrean tribuetako azitia emakumea zela: luzaroago bizi izaten zen, eta hark jasotzen zuen sendabelarren tradizioa. Eta, era berean, haizuloetako margoak emakumeek egin zituztela uste dut.

# Apirilak 16-30

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## LEHIAKETAK

### ANTZUOLA

► **Kukumarro erakusketa eta lehiaketa** deitu du Udalak, adin guztietako herritarrendako. Bakarka nahiz taldeka har daiteke parte lehiaketan. Izena emateko azken eguna maiatzaren 12a izango da. Horretarako, jo udaletxera.  
► **Balkoietako eta leihoetako lore-apainketa lehiaketa** deitu du Udalak. Sari banaketa San Juan bezperan izango da, ekainaren 23an, alegia.

### ARRASATE

► **Doke Txapelketa** izango da etzi, egubakoitza, Monterrongo Kondekua zelaian.  
► **Aktore ez profesionalen lehiaketa** deitu du Arrasateko lamai kafetegiak. Bidali zuen curriculumak Kontezino kaleko 14-baxua helbidera.

### BERGARA

► **XIX. Bergara Hiria Argazki Lehiaketa** deitu dute Bergarako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Edozein teknikarekin ateratako argazkiak onartuko dira. Bidali lanak honako helbidera, maiatzaren 27a baino lehen: Bergarako Udala; Errotalde kultura etxea; Argazki Lehiaketa; 20570; Bergara. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 30 90 telefonora.

### DEBAGOIENA

► **Espainiako gerran fusilatutuen memoria historikoa berreskuratzeko monolittoa** egingo dute, eta horrendako leloa aukeratzeko lehiaketa deitu du desagertuen senideen taldeak. Debagoiengan bizi, lan egin edo ikasten duen edozeinek har dezake parte. Gehienez ere 30 hizki izan beharko ditu esaldiak. Esaldia lelo batekin sinatuko da; gero, gutun-azal baten lelo bera idatzi eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta adina ipini beharko dira. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du lehiaketara. Mugaeguna: maiatzaren 6a. Erabakia lanak jaso eta hamar egunera jakinaraziko da.

## MUSIKA

### BERGARA

► **Culture** taldearen kontzertua izango da gaur, eguaztena, Jam aretoan, 22:00etan.  
► **Bergarako Musika Eskolako Orkestra** Alcalá de Henares-era joango da hilaren 25etik 27ra, han emanaldiak egitera.

### OÑATI

► **Ortophunk** talde gasteiztarrak kontzertua eskainiko du apirilaren 25ean, egubakoitzean, gaztelekuan, 22:30ean, Acid Jazz zikloaren barne. Txartelak hiru eurotan salduko dituzte.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Puzgarriak, quad-ak, trike-ak eta motordun patineteak** izango dira apirilaren 22an eta 23an, martitzenean eta eguaztenean, pilotalekuan eta inguruetan (10:30-12:30 eta 16:30-19:00).  
► **Udalekuetan parte hartzeko** epea zabaldu du Antzuolako Udalak, bai begiraleendako, bai eta umeendako ere. Argibide gehiago udaletxean.  
► **Paleta Txapelketa** jokatu da apirilaren 26an, zapatuan, pilotalekuan, goiz partean.

### ARETXABALETA

► **Udaleku irekietarako begiraleak** behar ditu Udalak. Curriculumak kultura etxera edo udaletxera eraman beharko dituzue, edo [kultura@aretxabaleta.net](mailto:kultura@aretxabaleta.net) helbide elektronikora bidali.

### ARRASATE

► **Liburu hondatuen azoka** izango da kultura etxean, apirilaren 30era arte. Bazkide bakoitzak bi liburu bereganatu ahal izango ditu.

### BERGARA

► **Turismo Bulegoa** honako egun eta orduetan egongo da zabalik apirilaren 14tik aurrera: astelehenetik zapatara,

10:30etik 14:00etara, eta 16:30etik 19:30era; domeketan eta jaiegunetan, 11:30etik 14:30era. Doako bisitaldi gidatuak egongo dira egunero.

### ELGETA

► **Aralar alderdiko Patxi Zabaleta koordinatzaile orokorrak** hitzaldia egingo du apirilaren 28an, astelehena, udaletxeko osoko bilkura aretoan, 20:00etan. Ekitaldi horretan bertan, alderdiaren hautagai zerrenda aurkeztuko dute.

### ESKORIATZA

► **Udaletxea zaharberritu dute**, eta inaugurazio ekitaldia apirilaren 30ean izango da, 18:30ean. Ekitaldi horretan bertan Udalaren irudi korporatibo berria aurkeztuko dute.

### EUSKAL HERRIA

► **Euskara ikasten dihardutenen-dako** familia euskaldunetan egonaldiak antolatu dituzte, HABEren laguntzarekin. Hori dela-eta, ikasleok hartzeko gertu dauden familiak behar dituzte. Baldintzak jakiteko, deitu 943 47 44 47 telefonora. Familiendako izenemate epea apirilaren 30ean bukatuko da. Bestalde, ikasle moduan parte hartu nahi duenak 94 416 24 72 telefonora

deitu beharko du, maiatzaren 1etik aurrera.

### OÑATI

► **Sinadura bilketa kanpaina** abiarazi du Ereitten Herri Ekimenak, udal hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko. Horretarako, Notaritzara joan beharra dago. Sinatu gura duzuenok eguazten edo eguenean joan beharko duzue (10:00-13:00 edo 16:00-17:30). Udaletxeko idazkaritzara ere joan zaitezke, gaur, eguaztena, azkeneko egunez, 18:00etatik 21:00etara.

## ERAKUSKETAK

### BERGARA

► **Anton Arrillagaren** margo erakusketa dago ikusgai apiril osoan Nahikari tabernan.  
► **Javier Merino margolariaren** erakusketa egongo da kultura etxean, apirilaren 29tik maiatzaren 11ra.  
► **Berrito ez-Nunca más** Espainiako gerraren gaineko erakusketa egongo da ikusgai udaletxean, apirilaren 29tik maiatzaren 11ra bitartean.

### ESKORIATZA

► **Hazia erein zenutenoi** Debagoieneko fusilatuen senideen batzordeak antolatutako erakusketa ikusgai dago kultura etxean, apirilaren 28ra arte.

### OÑATI

► **Espainiako gerran fusilatutako-en gaineko bi erakusketa** egongo dira kultura etxean apirilaren 24ra arte  
► **Ipuinez ipuin, haur literaturaren aretoa** erakusketa egongo da kultura etxean apirilaren 30era arte.

## IKASTAROAK

### ANTZUOLA

► **Zabalik dago KZGunea**. Astelehenetik egubakoitzera bitartean egongo da zabalik, 16:00etatik 20:00etara, eta taldeak antolatuko dituzte. Ikastaroak 22 ordukoak izango dira, 11 laneguntan egitekoak, eta saio bakoitza bi ordukoak izango da.

### ARETXABALETA

► **Dantza afrikar ikastaroa** izango da maiatzaren 20tik aurrera, baina izenemate epea zabalik dago, eta leku



### ► KONTZERTUAK

## BETIZU TALDEAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU BERGANAN

Betizu taldeak kontzertu bakarra eskainiko du Debagoiengan. Apirilaren 27an izango da (domeka). Eta horretarako, taldekide baten, Uxue Rodríguezen, herria aukeratu dute: Bergara, hain zuzen. Sarrera-txartelak Bergarako Etxepare-Bilintx dendan, Etxagi tabernan eta Jam kafetegian egongo dira salgai; baita Arrasateko Hire liburu dendan eta Discopolis-en ere. Uxue bergararrak eta Betizu taldeko beste hiru kideek, Ainarak, Leirek eta Mikelek, 17 abesti eskaintzen dituzte euren zuzeneko emanaldietan: lau, bakoitzak bana; bi, *Betimu* saiokoak eta gainerakoak, *BT 1.0* euren aurkezpen diskoak. Milaka lagun hurreratu izan dira orain arteko kontzertuetara, eta Betizu taldeak espero du arrakasta bera izatea Bergaran.

**Non:** Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** apirilaren 27an, domekan. **Ordua:** 17:30ean. **Txartelak:** Umeek, 8; helduek, 10.

## ITURGINA

ITURGIN bat kontratatu nahi da hiru urterako ur lantalerako.

### Baldintzak:

- Eskola graduatua, lanbide heziketa lehengo mailakoa, edo baliokidea.

Interesdunak [apirilaren 29an](#) aurkeztu behar dira goizeko 10:00etan Udaletxean.

**Oinarriak:** Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: [arrasate-mondragon.org](http://arrasate-mondragon.org)



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal salla ■







AIPAGARRI

**Xabier Agirre**

ANTZUOLA

**P**atxi Saiz getiar kantautorea-  
rekin diskoa grabatu du Xabier  
Agirrek. Maiatzean argitaratu-  
ko dute disko hori, baina oraindik ez  
diote izenbururik jarri. Hainbat  
musika tresna jotzen ditu Xabierrek  
diskoan: gaita, alboka, hainbat txistu  
mota... Zuzeneko emanaldietan ere  
parte hartuko du Xabierrek.



**Olatz Olaso**

BERGARA

**J**ardun euskara elkarteko  
presidente berria dugu Olatz.  
Aurreko asteko egunean egin  
zuen urteko batzar orokorra  
elkartean, eta hantxe aukeratu zuen  
zuzendaritza berria. Gauzak horrela,  
bi urtez Maider Arrizabalagak bete  
duen kargua hartu du Olatzek,  
beste bi urterako.



**Agustin Larrañaga**

BERGARA

**B**edelkarrek, Bergarako  
dendarien elkarteak, martxo  
amaieran egin zuten urteko  
batzar orokorra; besteak beste,  
presidente berria aukeratu zuten  
batzarrean, Agustin Larrañaga, hain  
zuzen ere, Larrañaga gozotegiko  
ugazaba. Bera izango da Bedel-  
kareko presidentea bi urtez.



**JAIOTAKOAK**


- Unax Isasi Ubera.** Elgetan, martxoaren 15ean.
- Ander Romero Zufiria.** Arrasaten, martxoaren 30an.
- Irati Arbulu Sarraoa.** Elgetan, apirilaren 1ean.
- Denise Cacheiro Pérez.** Bergaran, apirilaren 2an.
- Julen García Fuentes.** Arrasaten, apirilaren 3an.
- Nagore Pelicano Sotil.** Bergaran, apirilaren 5ean.
- Asier Berreteaga Gayubo.** Oñatin, apirilaren 5ean.
- Egoitz Murillo Balanzategi.** Arrasaten, apirilaren 6an.
- Estibaliz Benítez Malvar.** Aretxabaletan, apirilaren 6an.
- Ekain Altuna Domingos.** Aretxabaletan, apirilaren 7an.
- Naia Pérez Marzán.** Antzuolan, apirilaren 7an.
- Maialen Anduaga Baladrón.** Oñatin, apirilaren 9an.
- Uxue Azkue Muxika.** Arrasaten, apirilaren 11n.
- Ander Cuesta Cires.** Arrasaten, apirilaren 12an.



**Pablo Pavón** eta **Juli Vaz** aretxabaletarrak orain dela **25 urte** ezkondu ziren, 1978ko apirilaren 8an, hain justu. Zilarrezko ezteiak ospatu dituzte euren senitartekoekin batera, eta orain **Italian** daude bidaia erromantikoa egiten. **Zorionak**, bada, bikote, etxeko partetik!



**Arrate Etxaniz** bergararra eta **Pirmin Elola** zarauztarra joan zen martxoaren 29an ezkondu ziren **Zarautzen**. Gero, ezkon-bidaiara joan ziren Mexiko eta Guatemala aldera. **Zorionak**, bikote, eta urte askotarako, familia osoaren partetik!



**Anton Lete** mendiolarrak eta **Arantza Ojea** aretxabaletarrak 25 urte bete dituzte ezkondu. 1978ko apirilaren 15ean, hain zuzen ere, ezkondu ziren Dorletan. Orain, hortaz, **zilarrezko ezteiak** ospatuko dituzte senitartekoekin. **Zorionak**, bikote, etxeko guztien partetik!

**URTEURRENA**

**Bixente Murgiondo Galdos**

Urteurreneko meza  
zapatuan, apirilaren 26an,  
19:00etan,  
**Oñatiko** Mikel Deunaren parrokian



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.*

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkariaren* ordezkarietako batera.

**GOIENKARIA**  
Astero 21.500 etxetan.  
Eskelen prezioa: 75 €.



**Damian Toledo** eta **Mari Kruz Lezeta** antzuolarrek **50 urte** beteko dituzte ezkondu. 1958ko apirilaren 23an, hain zuzen ere, ezkondu ziren Antzuolako parrokian, eta Caserio tabernan egin zuten bazkaria. Maiatzaren 1ean ospatuko dituzte **urrezko ezteiak** familiarean; meza izango dute Antiguán, eta gero, bazkaria. **Zorionak** eta urte askotarako, familiaren partetik!



**Jesus Ojea** elorregitarak eta **Nati Amuriza** aretxabaletarrak 50 urte bete zituzten ezkondu joan zen egubakoitzean. 1953ko apirilaren 11n ezkondu ziren Jesus eta Nati Aretxabaletako parrokian. **Urrezko ezteiak** ospatzeko bazkari ederra egin zuten bikote honek familiarekin. **Zorionak**, bada, bikote, eta urte askotarako etxeko guztien partetik!

**URTEURRENA**

**Jose Luis Miner Arrieta**



Bergara Bike motozale taldeko lagunen izenean

**ESKELA**

**Mikel Zabala Markuleta**  
"Kino"

*Bizia zalapartaka  
Heriotza ixilean  
Geratzen zaiguna  
Zure erretratua*

Zure lagunak

**URTEURRENA**

**Justina Garro Uribarren**

Bigarren urteurreneko meza domekan, apirilaren 20an, 11:00etan,  
**Arrasateko** Garagartzako San Migel elizan.




*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**URTEURRENA**

**Federico Garitano Elkoro-Irbe**

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 20an, 12:30ean,  
**Bergarako** San Pedro parrokian



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.*

# Adi, irakurle!

GOIENKARIARik jasotzen ez duzula etxean?

Zure lagun, familiarteko, ezagun edo ingurukoren batek jasotzen ez duela?

Harpideen etiketan, daturen bat oker dagoela?

Daturen bat aldatu nahi duzula?



**Deitu 943 79 21 00 telefonora**

edo idatzi [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com) helbide elektronikora,  
eta eman zure izen-deiturak eta helbidea.

**Izan zaitetz harpide. Doan da!**

**Goienkaria**


DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

# HITZGEZIDUNAK

Luma

	Iskanbila, zarata	▼	Egitekoak, beharrak	▼	* Deitura
	Zuhaitz mota	▶	Euskal atzizkia	▼	
	Mila kilo	▶		▼	
Erabat nahasi	▼	Oso	▶		
Gogoa	▼	Zikira-turik	▶		
				Errep., gorotza	▶
				Bokala	▶
Gipuzkoako herria	▶			Kontso-nantea	▶
Harrera				50	
				Musika nota	▶
				Bokala	▶
Nolabait	▶			Kontso-nantea	▶
Senaia				Nago	
				Sodioa	▶
				Janari ongailu	▶
Listua	▶			Erregai mota	▶
Egur				Bi ken bat	▶
				Kausa partikula	▶
				Jainko egiptoarra	▶
Arrainen arnas organo	Garo	▶			
	Bokala	▶			
					Röntgen

# BILABILATZ



# UMOREGIROAN / Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

## EIBARKO GRANUJAK

Gure gerra aurrian granuja batzuk egin dabe fetxorixa bat eta eruan dabez kontzejupeko inspeziñora. Euretatik argixenak esaten detse bestie:

- Mutillak, zuek ixilik egon. Etxau emon bihar pistarik. Bestela, erxian garbitxuko gaitxuek. Neuk bakarrik eingo juat berba. Zuek trankil.

Onetan agertu da aguazilla:  
- Aber, zuek zeintzuk zarie? Esan izenak?

- Ara —diño mutil argixak— ointxe esango dogu egi guztia. Onek bixok anaiak dira: Kiliki eta Mokolo. Au Xagu-zarran anaia da. Beste au atemorrolluan kaka eñ zebana, eta bostok.

Auxe izan zan gaztetxo fitxa.

¡Averigüenlo, Vargas!

## PROBLEMARIK EZ

Punteret gustura bizi zan bere giruan. Ez jakon ezer falta. Esaten zeban:

- Ni konforme nagok nagon moduan. Kosme Beistegik eruan nai izan jestan Mexikora an asko geixago irabaziko nebala-ta. Nik, baiña, pentsau bezjuaterik! Ondo bizi-tzeko, nere itxuran, "kafe komple-tua" egunero artuaz, etxaukat Eibartik kanpora juan biarrik.

Eta umoretsu esaten zeban beste au be:

- Nik etxaukat problemarik dirua gastatzen dotenian. Juaten nok etxera eta tabako petakiakin egiten dana, orixe bera egiten juat: bete barriro.

# EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




## Zenbat zaharren egoitza daude Debagoienean?

Debagoieneko zaharren egoitzetan 361 lagunendako tokia dago. Gehienetan, baina, eskaintza baino handiagoa da eskaera; hau da, ohe faltan gaude Debagoieneko egoitzetan. Baina jakingo zenuke 361 ohe horietarako zenbat egoitza dauden gure ibarrean?

- Lau egoitza.
- Hiru egoitza.
- Bost egoitza.
- Sei egoitza.

**Erantzun zuzena:** Bost zaharren egoitza daude Debagoienean. Arra-saten (Iturbide), Bergaran (Mizpituale), Oratin (San Martin), Aretxa-baletan (Urats-gain) eta Eskorlatzan (Mercedeko Ama).

## SOLUZIOAK



Z	A	K	A	Z
R	•	Z	T	A
E	Z	T	A	R
T	I	B	R	U
S	A	G	•	A
A	N	•	A	D
B	•	A	L	O
A	L	•	I	G
G	•	A	M	A
A	K	•	A	M
S	A	R	A	•
A	N	O	•	T
L	A	K	A	M
•	L	•	K	•

# ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

## ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Barnean daramazun indarrarekin eta gaitasunarekin, edozer lortzen duzu. Bestalde, istripuren bat izan zenezake. Hortaz, argi ibili, batez ere errepidean.

## TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Zure inguruan tentsio handia nabaritu duzu, eta nahiko urduri egongo zara. Izan ere, zure inguruan jendeak eztabaida bizian dihardu, eta ez dira ados jartzen. Ahalegin zaitetz besteren kontuetan ez sartzen, ihes egin eztabaidetatik.

## GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Zure proiektuak bete egingo dira eta dena irtegi zaitu gura zenuen moduan. Hori dela eta, oso pozik egongo zara. Bestalde, gauzak esateko daukazun xamurtasuna dela-eta, askok eta askok zugana joko dute aholku eske.

## CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Ahalegin zaitetz zure oldarkortasuna menderatzen; bestela, aukera ona gal zenezake lanean gorantz egiteko. Bestalde, eztabaidak lagunekin eta familiakoekin, ez diezu-eta kasurik egiten. Azkenik, bitzasuna galduko duzu, azkenaldian makal samar zabilta-eta.

## LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Oraingo astean magnetismo handia izango duzu; hori dela eta, neska/mutil batek baino gehiagok sexu harremanak gura izango ditu zurekin. Bestalde, poztasuna eta ilusioa, azkenean ere, egin duzun lan guztia kontuan hartu dutelako eta lan hori fruituak ematen hasi delako. Azkenik, dibertsioa eta plazerra izango dituzu oraingo asteko lagun.

## VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Analisirako eta hausnarketarako gaitasun handia duzunez, beldur guztiak uxatuko dituzu eta, azkenean ere, behar dituzun aldaketak egiteko pausoak emango dituzu.

## LIBRA

irailak 23-urriak 22

Oraingo astean oso oldarkor jokatuko duzu; hori dela eta, bat baino gehiago txundituta geratuko da eta ez du jakingo zelan jokatu zurekin. Aprobetxa ezazu jarrera hori gauza batzuk argitzeko eta bati baino gehiagori bere lekua zein den argi uzteko.

## SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Arazoak lanean, emakume bat zure lana zaputzen ahaleginduko da-eta, ez zaitu utziko bakean lan egiten. Bestalde, ahalegin zaitetz alkohol askorik ez hartzen eta drogarik ez kontsumitzen, osterantzen, oso kaltegarri izan daiteke-eta.

## SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Ohi baino zoriontsuago ibiliko zara, espero ez zenuen diru estra bat kobratuko duzu-eta; eta gastatzeko ohi baino diru gehiago izango duzun arren, barra-barra gastatzeko duzun joerak arazoak ekarriko dizkizu hil amaierara heltzeko.

## CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Ahalegin zaitetz toleranteago izaten besteen akatsekin, eta ez izan hain gogorra; bestela, miretsi duzun norbaiten adiskidetasuna gal zenezake.

## AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20

Gau zoragarriak pasatuko dituzu familiakoekin, eta horrek ahalbidetuko du zuen arteko harremanak sendotzea. Bestalde, lan aukera onak, baina nagitasunagatik edo utzikeriagatik pasatzen utziko dituzu. Azkenik, etxebizitza aldatzeko edo bertan aldaketak egiteko aukera.

## PISCIS

otsailak 21-martxoak 20


Bikotekide egonkorra badaukazu, eten egingo duzu harremana, beste era bateko emakumea zela uste zenuelako, eta desilusio handia hartu duzu. Bestalde, ahalegin zaitetz inbertsiorik ez egiten.



# SUSTATU.COM

in terne teko profesional euskaldunen dako albistegia

<http://www.sustatu.com>



GOIENKARIA

Goiatz Arana kazetariak aurkeztuko du saio berria.

## Film zaharrak erabilia, ibarreko iragana gogoratu

*Ikusleek euren filmak utz diezazkiokete GOITBri*

LEIRE KORTABARRIA

**Debagoieneko historia modernoa gogora ekarriko digu GOITB prestatzen diharduen saio batek. Eta herritarren kolaborazioa oso baliagarria izango da ibarreko telebistarendako: film zaharrak dituzten debagoien-dar guztiek lagun dezakete.**

Urrian hasiko da emititzen, seguruena, GOITBren proiektu berria: nostalgian eta memoria historikoan oinarritutako saioa. Goiatz Arana kazetariak eta Pablo García ekoizleak abian jarritako saio horrek honako helburua du: "Garai bateko testigantza jaso gura dugu. Horretarako orduko filmak erabiliko ditugu oinarri moduan, eta gertakari haiek bizi izan zituztene-kin egingo dugu berba", azaltzen du Goiatz Aranak.

GOITBk lortu ditu dagoeneko saioa abian jartzeko film batzuk: zaharrena 1929ko zinta bat da.

Programa hori egiteko herritarren laguntza biziki eskertuko luke GOITBk: "Herritar askok dituzte orduko grabaketak, gure iritziz, eta eurek ere lagun diezagukete", diote arduradunek. Kolaboratzaileek eurek ere ordaina izango lukete: "Orduko zinta asko 8 mm edo Super-8 formatukoak direnez, jendeak ez du haiek ikusteko aparatuerik. Guk hori formatu digitalera pasatuko genuke, eta jabeari VHS formatuko zinta bat emango genioke, bere grabaketa ikusi ahal izan dezan", dio GOITBk.

Batez ere filmak erabiliko dituzte saioan; hala ere, kasu batzuetan, "oso-oso esanguratsuak izanez gero", argazkiak ere onartuko dituzte.

Dagoeneko grabatu dute saio pilotua. Ikurrinaren legeztapenaren gaineko erreportajea izango da; 1977ra eramango gaitu, hortaz. Orduko alkate debagoien-darrak elkarrizketatuko ditu Goiatz Aranak: besteak beste, Jose Luis Elkoro bergararra edo Jose Antonio Altuna arrasatearra. Beste saio batzuetan Arantzazuko Seminarioa eta Espainiako gerraren eragina landuko dituzte.

Programak denetariko gai ei eutsiko die: politika eta gizarte gai handiak, baina baita eguneroko kontuak ere: sasoi bateko Debagoieneko jaiak, ohiturak...

*"Film zaharrak erabilia, garai bateko gertakizunen testigantza jaso gura dugu"*

*"Zintak guri utziz gero, herritarrek grabaketa bera VHS formatuan jaso ahal izango dute"*

‘Alderik Alde Zabalik’ lelopean, maiatzaren 2tik aurrera irekitzen da aurrematrikula epea

## Arizmendi Ikastolak lau ibilbide eskeintzen ditu Batxilergoa egiteko



Batxilergoko ikasleak Europako zenbait hiritan izan ziren azkenengo Ikas-Bidaian.

Arizmendi Ikastolako arduradunen esanetan, Batxilergoaren helburua honako hau da: “persona ekintzaile eta sortzaileak gaitzen eta garatzen laguntzea, beren ingurunea hobetu eta eradtzeko eta beste batzuekin lankidetzan jarduteko gai izan daitezten”.

Helburu hau hobeto betetzeko, Batxilergoa Arizmendin egingo duten Debagoieneko gazteek lau ibilbide ezberdinen artean aukeratu beharko dute: Batxilergo Teknologikoa, Natur eta Osasun Zientziak, Giza eta Gizarte Zientziak eta Batxilergo Formatiboa.

Debagoieneko Ikastolan garrantzi handia ematen zaio guraso eta Ikastolaren arteko elkarlanari.

*Giza Balioen Garapenari eta guraso eta Ikastolaren arteko elkarlanari garrantzi handia ematen zaie*

Gainera, lan handia egiten da Giza Balioen Garapenaren inguruan: autogestioa, autonomia/autokontrola, norbere burua zaintzea, errespetua eta elkartasuna/altruismoa bezelako

balioak ikasleek euren eguneroko jardunean bereganatu ditzaten.

Azpimarratzekoa da, baita ere, irakasle taldearen izaera. Dedikazioa, antolakuntza egokia eta ikaslearekiko arreta pertsonalizatua dira irakaslearen lanaren euskarri nagusiak.

Ahaztu barik jangela eta garraioa bezalako zerbitzuak daudela eta eskolaz kanpoko ekintza ugari (txapelketak, ikastaroak, irteerak, udako eskaintza) antolatzen direla.

Ezaugarri guzti hauengatik, Batxilergoa egiteko Arizmendiren aukera oso aproposa duzue.

### Aukera eta Irteera anitzak

#### BATXILERGO TEKNOLOGIKOA

Ibilbide hau Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak transferituta dago. Ikasleek praktikak egiten dituzte Mekanika eta Elektronika alorretan.

#### NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK

Irteera anitzak eskaintzen dituen modalitatea. Metodologian bai Ikerketa dokumentala (IDZ-n), eta bai Ikerketa zientifikoa (laborategian) programazioan txertatzen dira. Funtsezko ikasgaiak: Kimika eta Biologia. Fisika eta Matematika ikasgaiak gehituz, irteera teknologikoetarako prestakuntza osatuagoa eskeintzen du.

#### GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Hiru ibilbide ezberdin eskaintzen ditu: Giza Zientzien arloa (Latina eta Artearen Historia), Gizarte Zientzien arloa (Matematika eta Geografia) edo bietako edozeinetatik. Metodologia ikerketa dokumentalean oinarrituta (IDZ zentruan) dago.

#### BATXILERGO FORMATIBOA

Batxilergoa bukatu ostean, Goi mailako heziketa ziklo bat egin nahi duen ikaslearentzako prestatuta dago. Ikasketa hauen helburua goi mailako heziketa zikloetan ikasleak arrakastaz txertatzea da, eta 4-5 urtetan ikasten jarraitu nahi duten ikasleentzat pentsatuta dago ibilbide hau.

**A**  
Arizmendi  
ikastola  
BATXILERGOAK



aurrematrikula epea

# zabalik

[maiazaren 2tik 9ra]

Informa zaitez!

902 11 20 25

## Atzeskua

MAIDER OSA

### Miriam Urkia/ Euskaltzain urgazlea

**A**ndereño, joan leikidot komunera?" galdera Aretxabaletako ume batek baino gehiagok egingo du...

Bai, horrelakoak geroago eta sarriago nabil entzuten. Leikedostazu eta antzerakoak ere bai.

**Horren aurrean zein da euskara garbituko duen edabe magikoa?**

Ez dakit, eta beldur naiz ohituragatik-edo ez ote ditugun gainetik kenduko. Egia da geroago eta okerrago eta automatikoago egiten direla zenbait gauza. Nik uste dut adinarekin,

apur bat kontziente garen neurrian, konturatuko direla horretaz gaurko umeak.

**Errua nori bota behar zaio: familiari ala hezkuntza etxeei?**

Denok dugu horren errua. "Jo egin dustezu" edo "ikusit egin dutzut" esaten genuen bakoitzean, etxean beti etortzen ziren "zer ikusi dustezu?" galdezka. Gaur egun ez dakit gurasoak ahalegintzen ote diren umei hori esaten. Irakasleak ere gainean egon beharko lirake, eta umeen ohiturak aldatzen ez direla ikusita, badirudi ez dutela hori egiten. Era berean, gizartearen lana ere bada euskara zaintzea.

**Hedabideek darabilten euskara, berriz, zuzena da?**

Saio bat egin da hori zelanbait kontrolatzeko. *Egunkaria-ren Estilo Liburua* garrantzitsua izan zen, eta GOIENKARIAK egindako lana ere hortxe dago. Batzuetan, ordea, presaka egiten dira lanak, eta kalitate hori ez da horrenbeste zaintzen.

**Euskararen kalitateari ala kantitateari, zeri eman behar zaio lehentasuna?**

Nik uste dut momentu baten kantitateari garrantzi handiagoa eman zaiola, euskara galtzeko arriskuan edo ikusi delako. Kalitatea zaindu beharra dago, kantitatea utzi barik. Ez dut inongo dudarik. Uste dut lortu dugula mailatxo bat, eta bagoazela aurrera apurka-apurka. Euskara batuak ere bere bidea nahiko egina du. Euskalkiak ere badoaz, eta zorionez gure ibarrean lan handia egiten da horiek aurrera eramateko.

**Euskaltzaindian ez zarete emakume askorik egongo! Horrenbeste gizonen artean, beldurrik ez?**

Euskaltzain osoen artean, emakume bakarra dago: Miren Azkarate. Urgazleen artean, ez dut ideiarik ere zenbat izango garen. Dena dela, alde horretatik ez dago inolako arazorik.

**Egia esatearren, galtzak bete lan izango duzue arauak zehazten. Egun batetik bestera aldatzen dituzuen ospea duzue...**

Uste dut egunero entzuten dugula hori! Ez da egia. Arauak Euskaltzaindiak jartzen ditu, eta Hiztegi Batuko lantaldean proposamenak egiten ditugu guk, eta horren arabera Euskaltzaindikoek erabakitzen dute arau bihurtu edo ez. Horrekin *fijazio* antzeko bat dugu denok. Hala ere, kasuren baten bai, baina jeneralean Euskaltzaindiak ez du aldaketarik egiten.



**"Sarri entzun beharra dugu Euskaltzaindiak arauak egunero aldatzen dituela"**

**"Gizartearen lana ere bada euskara zaintzea"**

**"Kalitatea zaindu beharra dago, kantitatea utzi barik"**

► Aretxabaletarra / 38 urte / UZEIko Lexikografia Saileko zuzendaria

## PIPERRAUTSA

### Urkulu

**I**kusmina sortu zuen Zatik Planaren aurkezpenak Arrasaten. Gaia inportatzaigun seinale. Horregatik, uste nuen hauts gehiago harrotuko zuela, baina gutxi eztabaidatu da, eta erreakzioak mekanikoak iruditu zaizkit. Adibidez, Urkulu dagoenetan gordetzekoa.

Gogoan dut Urkulu ibar berdea zen garaia, nolako zalantzak sortu zituen urtegiaren asmoak. Ze, erdi ahaztu badugu ere, Urkulu artifiziala da, pertsonen egindakoa. Ez da beti kaltegarri naturarentzat gizakiaren eskua.

Orain bigarren urtegi bat proposatu da, eta orduan bezala zalantzak sortu dira. Lehengoa ikusita, agian konfiantza izan beharko genuke emaitzarekin. Gainera, asmoaren aldeko arrazoirik ere badago. Bat, urperatuko litzatekeen inguruak ez du aparteko erabilpenik, galtzen dena baino gehiago irabaz daiteke. Nik, behintzat, urtegia nahiago beste industrialde bat baino. Bi, Debagoiena ez da Bardeak edo Yosemite, inguru urbanoa baizik. Pentsa dezagun Urkuluko bi urtegien ingurua izan daitekeela Londresko parke handien antzeko zerbait. Gustatuko litzaidake. Eta hiru, gizakiaren eskua bai baina tentuz eta mugekin. Duela 30 urte baino askoz gehiago errespetatzen dugu gaur ingurua.

Galdera bada Urkulu izorratu ala ez, edonork dio ezetz. Baina balitz erabilgarriago egin ala ez, nik diot baietz. Ez baita beti gauza berdina erabili eta izorratu. Urkulu bera adibide.

MIKEL IRIZAR

Babes eta erosotasun handiagoa



Kanporako saretak

Dekorazio aukera guztiak



Estoreak, errezelak eta saretak

Eguzki babesa



Toldoak

VELUX®

gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1  
 OÑATI  
 Tel.: 943 71 63 22  
 Faxa: 943 78 15 51